ARGIA

- Nafarroan EH Bilduk erabakiko du gobernua
- Gasteizen EH Bilduren garaipen historikoa, baina alkatetza PSEra?
- Bizkaian EAJ berriz nagusi, baina EH Bildu hurbilago du
- Gipuzkoa PPren eskuetan

M28 UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

EH Bilduk jauzia gora, EAJk behera

6-15. orrialdeak

#2.827 | 2023 / 06 / 04 | 4,00 €

Irabazle eta galtzaileen lasterketa desorekatua

28 | UNIBERTSITATEA

Abertzale mugimenduaren bide-orria adosteko dinamika

34 | BAGIRA

Emakume bertsolarien konplizitate-keinuak

44 | 'ÑO' KOMIKIA

ARGIA Azoka

ELI PAGOLA, MAITANE GARTZIANDIA ETA MIREN ARTETXE

Komiki berria
140 orrialde koloretan
Prezioa **24** €
Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

AUTO BIDAIAK BERTSO SAIOETARA BIDEAN.
ZORIZKO ALIANTZAK ETA ADISKIDETASUNAK.
OHOLTZAPEKOAK. OHOLTZA GAINEKOAK.
BOTERE HARTZEAK, GARAGARDOAK ETA KONPRESAK.
EMAKUMEOK JENDAURRERA JAUZI EGITEAN
BIZI DITUGUN POZAK, ALEGIA.

Eskaintza berezia
Ekainaren 11 arte
ARGIAko kide bazara **20 €**-an
ARGIAkoa eginez gero
jaso etxean **opari**

azoka@argia.eus
(+34) **943 37 15 45**

ARGIA

2.827 zenbakia | Ekainak 4, 2023

Panorama

04 | ASTEKO ARGAZKIA
06 | AKTUALITATEA
07 | MATERIALISMO HISTERIKOA
07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

23 | IRATI LABAIEN
24 | TERE MALDONADO
25 | AINGERU EPALTZA
25 | LEIRE NARBAIZA
26 | AHOZTAR ZELAIETA

Finkoak

39 | BIZI BARATZEA
42 | ARGIA KOMUNITATEA
43 | DENBORAREN MAKINA
48 | KULTUR-KRITIKAK
51 | DENBORA-PASAK
52 | ARGI-KONTRA: ENEKO AXPE
54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

AZALEKO ARGAZKIA: **ARITZ LOIOLA / FOKU**

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

IÑIGO URIZ / FOKU

28 | **UNIBERTSITATEA ETA KLASE ARRAKALA**

Mikel Garciak erreportajea azaldu ditu unibertsitatera sartzerakoan dauden oztopoak: hasi aurreko urteetako ikasketa ibilbidetik, jarraitu sarbide frogarekin, gutxieneko notekin, plaza kopuru oso mugatuekin, matrikula prezioekin... Unibertsitate pribatua gora ari da.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | NET HURBIL
Eztei-bidaia bat Sri Lankara, edo erregai fosilik gabeko etorkizunera
Urko Apaolaza

18 | PERTSONAIA | IKER BENGOETXEA
“Euskararen normalizazioan, bikoizketak entzumena lantzeko onura handiak ekartzen ditu”
Reyes Ilintxeta

34 | POLITIKA | ANITA LOPEPE
“Inkestak balioko digu Bagira prozesuan zertan garen eta ondoko geltokia non jarri erabakitzeko”
Jenofa Berhokoirigoin

44 | KULTURA | *ÑO!* KOMIKIA
“Irabazi dugu aukera espazio batzuetan gure umorea egiteko”
Jon Torner

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartziandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

eaj
pnv
Aurrera, batera!
Euskadi
Mira al futuro
eaj
pnv



EAJren nagusitasuna apaldu dute EH Bilduk eta abstentzioak

Abstentzioaren eta EH Bilduren igoerek ezbaian jarri dute jeltzaleen ohiko nagusitasuna Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Nafarroan ere eskuina irabazle, baina leku gehienetan ezin gehiengo osora iritsi. Beste lau urtez boteregune nagusi gehienetan EAJ eta sozialista espainiarrek errepikatzeko aukera asko dago. Ondorengo orrietan grafikoen bitartez aletu ditugu hauteskundeen emaitzak eta lurralde bakoitzean gertatutakoa aztertu dugu.

RAUL BOGAJO / FOKU AXIER LOPEZ

PSNren gobernua errepikatzeko aukera

XABIER LETONA

Ia bost puntuko parte-hartze txikiagoarekin alderdi handi guztiek boto gutxiago lortu dituzte Nafarroako Legebiltzarrean, salbu eta EH Bilduk, zeinak bere historiako emaitzarik onena lortu eta lehenbiziz hirugarren indarra izatera pasatu den Nafarroan, Geroa Bairi aurre hartuz. Eskuinak 2019an baino emaitza txarragoak lortu ditu, eserlekutan eta bototan; baina Voxekin, puntu bat gora egin dute ordezkaritzan eta eskuin muturrak botoak hirukoiztu ditu. Parlamentuan nabarituko da haien presentzia, eta seguruenik eskuina eskuinerago eramango dute; zalapartatik harago, hori ohi da eskuin muturraren lorpenik kaltegarriena. Zurekin Nafarroak eutsi egin dio eserlekutan, baina bototan 7.000 galdu ditu. Ostera ere ikusten da batzeak ez duela beti gehiago ematen.

EH BILDU

Iruñerako beste aukera bat: Elma Saiz alkate, EH Bilduk indar handiz baldintzatutako gobernu batean

Eta emaitza horrekin zer? Bada, EH Bilduk betetzen badu esaten ari dena, azken legealdiaren antzeko panorama gelditu ko da. PSNk, Geroa Baik eta Zurekin Nafarroak gobernua osatzeko indarra izango dute: eskuinak eta eskuin muturrak baino boto bat gehiago dute. Horretarako EH Bildu abstenitu egin behar da inbestidura saioan, eta gobernagarritasuna bermatu behar du aurrekontuei begira. Hori bai, oraingoan indar gehiago izango luke negoziazio horietan.

Eskuina beti irabazle Nafarroan, baina leku gehienetan ezin gehiengo osora iritsi. Hori da UPNko buru Javier Esparzaren drama, bakarrik ezin eta PSNrekin ere ez, garai batean bezala. Hirutan aurkeztu da eta badirudi hirugarrenean ere galduko duela lehendakaritzarako aukera. Ez dirudi laugarren aukerarik izango lukeenik. Geroa Bain ere badituzte arrazoiak kezkatuta egoteko, erabakigarria izan ohi den Uxue Barkosen bultzada ez baita izan nahikoa oraingoan, eta gainera, Barkos ez baita betirako politikan.

IRUÑEA BERO-BERO

Ezker abertzaleak sostengu handia izan du beti Iruñean, baina Joseba Asironen emaitza handiak berriz erakusten du pertsonak zein garrantzitsuak diren. UPN-EH Bildu polarizazioa inoiz baino handiagoa izan da –3.000 botoren aldea eskuindarren alde–, eta 2015eko gobernu blokeak enpate egin du zinegotzitan eskuinarekin. Zalantzarik gabe, indar adierazle dira horiek guztiak, baina ez gobernagarritasuna aldatzeko modukoak. Aurreko legealdian moduan, orain ere Iruñeko alkatetza PSNren esku egongo da, eta hark esan du ez duela EH Bildu bozkatuko. Beraz, normalean UPNk gobernatuko du, baldin eta beste formula batzuk gailentzen ez badira.

Hala ere, urrutikoagoak baina beste aukera batzuk egon badaude. Esaterako, PSNk eta EH Bilduk legealdia banatu dezakete, bi urte batek izan dezake alkatetza eta beste bi besteak. Edo, azkenean, EH Bilduk PSNri ematea alkatetza. EH Bilduren oinarriek ez lukete samur irentsiko apo hori, baina EH Bilduk behin eta berriz esan du eginahalak egingo dituela eskuinak gobernatu ez dezan. Elma Saiz alkate, EH Bilduk indar handiz baldintzatutako gobernu batean. Aldaketa instituzionalak bultzatu nahi badira, horra beste aukera bat. Ez litzateke lehen aldia, 1979an PSOE (5) HBren (7) atzetik gelditu baitzen, eta eskuinak har ez zezan HBk eta EAJk (2) Julian Balduz sozialista egin zuten alkate.

Ezker abertzalea lehen indarra da zinegotzitan Nafarroan, baina UPN bototan, eta PSNren indarra batez ere Iruñetik behera dagoela berresten da. Horrela hobeto ulertzen da, adibidez, euskararekiko PSNk duen jarrera oldarkorra. EH Bilduk hainbat alkatetza berreskuratuko ditu, lehen indarra izan delako. UPNk, aldiz, ez ditu gehiengo osoak garai batean bezala lortzen, eta gobernatzen badu izango da PSNk hala hautatzen duelako, adibidez Barañain, Eguesibar edo Lizarran. ●

Nafarroako Legebiltzarra

	2023	2019
UPN	89.643	-
PSN	66.448	70.143
EH BILDU	42.665	59.106
GEROA BAI	55.478	49.744
PP	23.080	-
ZUREKIN NAFARROA	19.539	26.350
VOX	13.754	4.546
ABSTENTZIOA	% 33,38	% 29,19



*2019an Navarra Sumak (UPN+PP+CS) 124.336 boto lortu zituen.

Iruñeko Udala

	2023	2019
UPN	30.691	-
EH BILDU	27.752	26.691
PSN	15.850	17.417
PP	8.526	-
GEROA BAI	7.654	8.406
ZUREKIN NAFARROA	5.228	7.770



Nafarroako udalak

EH Bildu izan da lehen indarra 40 udalerritan, **UPN** 22tan, **PSN** 17tan, **Geroa Bai** 4tan. Bestelakoak 151.

ONDORENGO UDALETAN ALDERDI BOZKATUENA ALDATU DA:

Zizur Nagusia (2023: GEROA BAI / 2019: NA+)
Tafalla (2023: EH BILDU / 2019: NA+)
Berriobeiti (2023: EH BILDU / 2019: NA+)
Burlata (2023: EH BILDU / 2019: NA+)
Abaurregaina (2023: EH BILDU / 2019: GAZTELUBERRI)
Lekunberri (2023: EH BILDU / 2019: LT)
Arguedas (2023: UPN / 2019: PSN)
Valtierra (2023: UPN / 2019: PSN)
Monteagudo (2023: PSN / 2019: UPN)
Caparroso (2023: PSN / 2019: CPF)
Pitillas (2023: PSN / 2019: AIP)
Sartaguda (2023: PSN / 2019: EH BILDU)
Lodosa (2023: UPN / 2019: LOIU)
Mendabia (2023: UPN / 2019: PSN)
Torralba del Rio (2023: GEROA BAI / 2019: TU)



*2019an Navarra Suma koalizioan aurkeztu ziren UPN, C's eta PP. Hauteskunde hauetan koalizio horretako kideren batek irabazi badu aurretik Na+ zegoen udalen batean, ez dugu aldaketen zerrendan sartu.

EH Bilduren garaipen historikoa Gasteizen, eta Araban EAJ nagusi doi-doi

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Arabako herritarren %75 bizi den Gasteizen EH Bilduren zerrendak jaso du boto gehien, eta alkatetza zuen EAJ laugarren postuan geratu da, PSEren eta PPren atzetik. Arabako Foru hauteskundeak EAJk irabazi ditu, baina 10.000 boto utzita bidean, EH Bilduri eserleku bakarra aterata eta PSErekin zuen gehiengo absolutua galduta. Arabako zazpi udalerri populatuenetatik lautan irabazi ditu hauteskundeak EH Bilduk; bitan EAJk; eta beste batean PSEk. Oro har, EH Bilduren eta EAJren arteko lehia izan da nagusi Arabako udal eta foru hauteskundeetan. Uneotan zaila da antzematen nork eskuratuko duen alkatetza, eta nola osatuko den udal gobernua.

EH BILDU

GASTEIZ

Gasteizen lehia EAJ eta EH Bilduren artekoa izango zela aurreikusten zuten inkestek, baina EH Bildu eta PSEren artekoa izan da azkenik. Rocio Viteroren zerrendak 1.000 boto eskasen aldeari esker irabazi du; EH Bilduk 7 zinegotzi eskuratu ditu, eta PSEk 6 (2019ko zinegotzi kopurua berdinduta); seina lortu dituzte ere PPk (bat irabaziz) eta EAJk (bat galduz), koska bat beherago geratu badira ere. Podemosen inguruko koalizioak 2 zinegotzi lortu ditu.

UDALERRI NAGUSIAK

Laudion eta Agurainen ere EH Bilduk lehen postua kendu dio EAJri, bietan emaitzak irauliz alde oso txikiagatik: Laudion EAJk baino 29 boto gehiago eta 7 zinegotzi eskuratu ditu koalizioak, eta EAJk 6; Agurainen 55 boto eta zinegotzi bakarreko aldea atera dio EAJri. Amurrio izan da EAJk mantentzea lortu duen udalerri handi bakarra, 2019ko emaitzak errepikatuta (EAJ 8; EH Bildu 7). Iruña Okan denak berdin jarraitzen du: PSEk 4 zinegotzi lortu ditu; EAJk 3; eta EH Bilduk 2. Oionen, Arabar Errioxako udalerri populatuenean, irauli ikusgarria gertatu da: EH Bilduk 5 zinegotzi lortu ditu 3 irabazita eta lehen indarra bilakatu da. Dulantzin EAJ izan da lehen postua eskuratu duena (5 zinegotzi), kandidatura independenteari irabazita (4).

> **Gasteizen zein Batzar Nagusietan ez dago erraza aurreikusten zer gobernu eratuko diren eta zein babesekin**

Trebiñuko konderrian, Trebiñu herrian hautagaitza independenteak gehiengo absolutuari eutsi dio. Argantzunen, 2019an garaipen historikoa erdietsi zuen EH Bilduk legez Burgoskoa den lurraldean; baina 2023an, zinegotzi kopuru bera lortu badu ere (3), EAJk eskuratu du lehen postua eta gehiengo absolutua (4).

BATZAR NAGUSIETAN EAJ NAGUSI OZTA-OZTA ETA VOX SARTU DA

Arabako foru hauteskundeetan EAJk lortu du lehen postua mantentzea, baina oso alde txikiagatik. EH Bildu lehen indarra izatetik 1.200 botora geratu da. Jeltaleek 15 eserleku lortu dituzte, eta EH Bilduk 14. PSEk 9 ordezkari izango ditu Batzar Nagusietan (bat gutxiago), eta beste horrenbeste PPk (bat irabazita). Podemosek boto galera handia izan du eta 3 eserleku erdietsi ditu (bat behera). Voxek lortu du %3aren langa gainditzea, eta eskuratutako 4.500 botoei esker eskuin muturrak ordezkari bat izango du Arabako Aldundian. Gasteizen bezala gobernu berriaren osaera ez da erraz antzematen, baina argi dagoena da EAJ-PSEk zuten gehiengo absolutua galtzeak gauzak aldatzen dituela.

ABSTENTZIOA GORA

Emandako botoek ez ezik eman ez direnek ere baldintzatu dute emaitza. Gasteizen, 2019rekin alderatuta, botoak galdu dituzte PSEk, PPk, EAJk zein Elkarrekinek. EH Bildu izan da gora egin duen bakarra, oso modu apalean (300 boto). Araban, boto galera izan dute EAJk, PSEk eta Elkarrekinek: eta irabazi EH Bilduk (3.000), PPk (1.000) eta Voxek (2.200). Abstentzioak %17a egin du gora Araban (%34tik %40ra), azken urteetako joera baieztatuz. Paperik eta hortaz boto eskubiderik ez duten milaka arabarrak alde batera utzita, 10 herritarretik 6 joan dira hautetsontzietara, eta 4 ez. ●

Arabako Batzar Nagusiak

	2023	2019
EAJ	38.184	47.510
EH BILDU	36.980	33.841
PSE-EE	27.183	30.481
PP	25.030	24.156
ELKARREKIN PODEMOS	10.279	16.003
VOX	4.485	-
ABSTENTZIOA	% 40,39	% 34,93



Gasteizko Udala

	2023	2019
EH BILDU	24.845	24.529
PSE-EE	23.909	25.524
PP	21.853	22.094
EAJ	21.454	28.241
PODEMOS, EZKER ANITZA, EQUO*	7.742	11.774



Arabako udalak

EAJ izan da lehen indarra 25 udalerritan, **EH Bildu** 17tan, **PP** 3tan, **PSE-EE** 2tan. Bestelakoak 6.

ONDORENGO UDALETAN ALDERDI BOZKATUENA ALDATU DA:

Gasteiz (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Agurain (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Laudio (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Oion (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Dulantzi (2023: EAJ / 2019: DTI-AIA)
Argantzun (2023: EAJ / 2019: EH BILDU)
Trebiñu (2023: TREVIÑO DÍA A DÍA / 2019: CDC)
Erriberabeitia (2023: RBB / 2019: EAJ)
Samaniego (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Zanbrana (2023: PSE-EE / 2019: AIZ/ZAI)
Iruraitz-Gauna (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)



Navaridas (2023: EAJ / 2019: PP)
Urizaharra (2023: AIM/UEI / 2019: AMI)
Berantevilla (2023: EAJ / 2019: AIB/BAI)

Mende erdia beteko du EAJk boterean, baina...

AXIER LOPEZ

1979tik, faxismoren ostean lehen hauteskundeak egin zirenetik, bizkaitarrek ez dute beste alderdirik ezagutu Batzar Nagusietako eta Bilboko Udaleko gidaritzan. Europan ia parekorik ez duen fenomenoa da. Testuinguru politiko eta ekonomiko guztietara moldatzen asmatu dute jeltzaleek, ohiko formula kontserbadoreari helduta. Eta azken hauteskundeetan ere hala izan da: Bizkaiko boteregune nagusietan garaile argia izan da, baina...

RAUL BOGAJO / FOKU

GEHIENGO ABSOLUTUTIK URRUN

Ia 6 puntu egin du abstentzioak. Bizkaiko erregimeneko bi indarrei egin die kalte, baina bereziki EAJri. Edonola ere, sozialista espainiarren makulu eskertuari esker, Elixabete Etxanobek hartuko du Unai Rementeriaren lekukoa Batzar Nagusietan eta Juan Mari Aburtok 2015ean hasitako bidea jarraituko Bilboko alkatetzan. Bi boteregune nagusiotan gehiengoa lortzeko gertu izan ziren jeltzaleak 2019an. Oraingoan ere hala nahi zuten, baina abstentzioak eta EH Bilduren igoerak galarazi dute. Bi ordezkari eta 50.000 bozka galdu dituzte jeltzaleek batzarretan eta EH Bilduk 16.000 bozka eta 5 batzarkide irabazi. Bilbon ere antzeko: 17.000 bozka eta bi zinegotzi galdu EAJk, 3.000 eta 2 irabazi EH Bilduk. Sozialista espainiarrek ordezkari kopuru bera izango dute, bozka batzuk galduta ere.

EH BILDU POZIK

Udaletan EAJk 45.000 bozka eta 38 zinegotzi galdu ditu (569), eta EH Bilduk aldiz 14.000 bozka 62 zinegotzi irabazi ditu. Hauteskundeetan antzeztutako dikotomia mapetan ere ikusten da. Oro har, mendebaldeak jeltzale kolorea du eta ekialdeak EH Bildurena. Koalizio independentistak, zinegotzi eta boto kopuruan gora eginda, 2019an lehen indarra izandako ia herri guztiei eutsi die, baita EAJrekiko aldea handitu ere. Adibidez, Galdakaon EH Bilduko alkatea izango dute berriro, baina oraingoan lehen indarra izanik. Durangon ere EH Bildu lehen indar bilakatu da, baina Elkarrekin Podemos inguruko koalizioaren emaitza txarrek eraginda, agintea EAJren esku geratuko da seguruenik. Bermeon oso litekeena da aldaketa: bigarren geratu da EH Bildu baina Guzan independenteekin batera EAJri alkatetza kentzeko aukera izango lukete. Lehen indarren zerrendara beste herri batzuk gehitu ditu EH Bilduk: Lekeitio, Sopela edota Markina-Xemein esaterako. Gernikan ere lehenak izan dira, baina bigarren geratu den Jose Maria Gorroñoren –EArekin, Bildurekin zein EAJrekin hainbatetan alkate izandakoa– hautagaitzak aukeratuko du alkatetzaren kolorea.

HANDIETAN ALDAKETARIK EZ

Bilbo, Barakaldo, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Basauri, Leioa, Sestao eta Erandion 780.000 bat lagun bizi dira: Bizkaiaren bi herenak, eta Euskal Herriaren laurdena kilometro gutxi batzuetan. Horietan ez da aldaketarik alkatetzari begira. Bozkak eta zinegotziak galduta ere, EAJk aurreko legegintzaldian lortutakoari eutsi dio, eta denetan lehen indarra izaten jarraitzen du, Portugaleteko ohiko salbuespena izan ezik. PSEk, Ermuarekin batera, Bizkaian duen gotorleku nagusian osasuntsu jarraitzen du. Horrez gain, sozialistek Meatzealdeko bi plaza berreskuratu dituzte: Trapagaran eta Muskiz, EAJren kaltetan. Zonalde oso populatu hauetan azpimarratzekoa da, abstentzioa handituta ere, EH Bilduk botoetan igoera lortu duela gainerako indar gehienen jaitsierarekin batera.

KAPITALISTEN BLOKEA EROSO

Ezkerreko indarrentzat lehen bezain iluna jarraitzen du panoramak. EH Bilduk koska bat kendu dio EAJ-PSE-PP kapitalisten multzo nagusiari, baina Elkarrekin Podemosen inguruko hautagaitzek nabarmen atzera egin dute. Balantzak desorekatuta darrai. Gainera, PPk azken urtetako galera etengabea gelditu du eta, abstentzioa handituta ere, 5.000 boto inguru egin du gora. Popularren bertsio faxistagoak lortu duen igoera antzekoa da: 10.634 bozka eskuratu ditu VOXek herrialde osoan. ●

Bizkaiko Batzar Nagusiak

	2023	2019
EAJ	204.560	255.861
EH BILDU	132.955	116.862
PSE-EE	84.663	97.652
PP	43.911	39.190
ELKARREKIN PODEMOS	38.774	62.490
ABSTENTZIOA	% 39,93	% 34,26



Bilboko Udala

	2023	2019
EAJ	54.445	71.822
EH BILDU	28.124	25.138
PSE-EE	24.356	26.783
PP	17.950	15.441
ELKARREKIN PODEMOS	11.871	17.661



Bizkaiko udalak

EAJ izan da lehen indarra 59 udalerritan, **EH Bildu** 40tan, **PSE-EE** 4tan. Bestelakoak 9.

ONDORENGO UDALETAN ALDERDI BOZKATUENA ALDATU DA:

Durango (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Gernika-Lumo (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Lekeitio (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Galdakao (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Markina-Xemein (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Lemoiz (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Plentzia (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Sopela (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Mendexa (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Errigoiti (2023: EAJ / 2019: EH BILDU)
Lemoa (2023: EAJ / 2019: EH BILDU)
Igorre (2023: EAJ / 2019: EH BILDU)
Urduña (2023: EAJ / 2019: EH BILDU)



Fruiz (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Muskiz (2023: PSE-EE / 2019: EAJ)
Trapagaran (2023: PSE-EE / 2019: EAJ)
Sopuerta (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Balmaseda (2023: EAJ / 2019: CLI)

Orozko (2023: EAJ / 2019: ADIE)
Zeanuri (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Zeberio (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Zaratamo (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Atxondo (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)

EH Bildu garaile Gipuzkoan, eta Donostian 1.000 botora

LEIRE ARTOLA ARIN

Ohikoa da Gipuzkoako mapa EH Bilduren koloreekin ikustea, bertan izaten baitu babesik handiena. Baina 2023ko hauteskundeetan saltoa eman du, eta EAJri are gehiago aurreratu zaio: batzar nagusietan Maddalen Iriarte nagusitu da, eta Donostiako Udalean Juan Karlos Izagirre 1.000 boto eskasen aldearekin geratu da Eneko Goiaren atzetik. EAJrenak ziren zenbait udaletako alkatetzak ere EH Bilduren eskuetara pasatu dira.

Gipuzkoan ere azpimarragarriak izan dira abstentzioa (%40,07), boto zuriak eta boto baliogabeak. Baina boto emaileek kolpea eman diote EAJri, eta batzar nagusietan bigarren indar gisa geratu da, 17 diputaturekin (-3), eta ia 25.000 boto gutxiagorekin 2019an baino. EH Bilduk "egin du", eta 120.578 boto eta 22 batzarkiderekin (+5) nagusitu da. Maddalen Iriarte prest agertu da biharamunean bertan gobernu "aurrerakoi eta zabala" eratzeko negoziaketei ekiteko. 26 eserleku behar dira gehiengorako, beraz, PPk erabaki lezake batzarretako agintea: EH Bildu eta Elkarrekin Podemosek batera 24 batzarkide dituzte, EAJ eta PSEk bezainbeste; PPk 3 eskuratu ditu.

Jeltzaleek herritarrei esan diete "mezua ulertuta" atera direla hauteskunde hauetatik, eta lanean jarraituko dutela datozen lau urteetan. Halaxe egin beharko du Eneko Goia Donostiako alkateak, ia 10.000 boto galdu ondoren. Bigarren bozkatuena izan arren, hiriburuko garailetzat jo daiteke ezker koalizioa: EAJgandik 1.000 boto eskasera geratu da Izagirreren zerrenda, inoizko emaitzarik onenarekin. 8 zinegotzi (+2) eskuratu ditu, jeltzaleek baino 1 gutxiago. Hiriburuko erronka handiena izango da turistifikazioaren ondorioei erantzutea, eta horretan proposamen zorrotzagoa du Izagirrek, Goiaren aldean.

EH BILDU

> **Hiriburuko garailetzat jo daiteke EH Bildu: EAJgandik 1.000 boto eskasera geratu da, inoizko emaitzarik onenarekin**

UDALAK ERE KENDU DIZKIO EAJ-RI

Gipuzkoako udal gehienetan ere ezker independentistaren zerrendak nagusitu dira, eta EAJri zenbait alkatetza kendu dizkio. EH Bilduk izango ditu Debagoienako alkatetza guztiak, baita mankomunitatea ere.

Bakarrik gobernatzeko gehiengo absolutua dute, besteak beste, Tolosan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Tolosan 1.000 boto galdu dituzte jeltzaleek, eta 7 eserlekurekin (-1) izango da oposizioa. 9 zinegotzirekin (+2) aginduko du EH Bilduk. Beste udal batzuetan gobernagarritasuna gertu dute, akordioen arabera betiere. Esaterako, Arrasaten 10 eserlekurekin (+2) irabazi du ezker independentistak, eta nahikoa izango du Elkarrekin Podemosek lortutako zinegotzi bakarra agintzeko. Hondarribian EAJk gehiengoa galdu du eta bigarren indar izatera jaitsi da, Abotsanitzek aurre hartuta. EH Bildurekin elkartuz gero, gehiengoa izango lukete, EAJ-PSEren gainetik. Andoainen ere aldaketa egon liteke, EH Bilduk gora eta EAJk behera egin dutenez, EAJ-PSEk ez duelako gehiengorik, eta EH Bildu-Elkarrekin Podemosek bai.

EAJ beste behin nagusitu da udal hauetan: Elgoibar, Beasain, Lazkao, Urretxu, Azkoitia, Zarautz, Aia eta Urnietan. PSE-EE ere ohiko herri hauetan gailendu da: Irun, Lasarte-Oria, Eibar eta Zumarragan, batzuk aipatzearren.

Azpeitian zalantza zegoen nola eragingo zion EH Bilduri zentral eolikoen inguruko auziak, baina emaitzan ez da aldaketarik izango. EH Bilduko Nagore Alkorta alkatearen agintea berretsi dute bozkatzaileek. 10 zinegotzirekin mantenduko da EH Bildu, EAJk ere 7 zinegotzirekin jarraituko du oposizioa izaten.

Gipuzkoan eremua irabazten jarraitzen du EH Bilduk, EAJri gailenduta. ●

Gipuzkoako Batzar Nagusiak

	2023	2019
EH BILDU	120.578	116.113
EAJ	105.437	130.767
PSE-EE	51.591	62.788
ELKARREKIN PODEMOS	21.283	32.831
PP	20.574	17.303
ABSTENTZIOA	%40,07	%33,38



Donostiako Udala

	2023	2019
EAJ	24.471	34.065
EH BILDU	23.392	20.367
PSE-EE	16.252	16.851
PP	10.576	10.340
ELKARREKIN PODEMOS	7.053	9.476



Gipuzkoako udalak

EH Bildu izan da lehen indarra 49 udalerritan, **EAJ** 9tan, **PSE-EE** 6tan. Bestelakoak 23.

ONDORENGO UDALETAN ALDERDI BOZKATUENA ALDATU DA:

Arrasate (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Hondarribia (2023: ABOTSANIZ / 2019: EAJ)
Tolosa (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Legazpi (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Zegama (2023: EH BILDU / 2019: ZEGAMA LANTZEN)
Aretxabaleta (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)
Eskoriatza (2023: EH BILDU / 2019: EAJ)



Laino urdin ilunak

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Ez zuen askorik behar txupina jaurtitzeko, baina egiari zor, egin du egin beharrekoa eta gehiago. Astindu galanta eman dio ezkerrari, eta abenduko hauteskunde orokorretara begirako mehatxu erreala bota du jada Espainiako eskuinak. Alderdi Popularrak zaplazteko dezente banatu ditu batean eta bestean, inkestek ziotena baino gehiago. Feudo sozialistenak popular bihurtu dira, Extremadurako Gobernua kasu, eta Sevillako Udala, Cadiz –Andaluziako zortzi hiriburuetatik zazpitan gailendu da PP, inoiz ez bezala–, Errioxa, Valentziako erkidegoko gobernua eta udala, Aragoi, Balearrak... eta gotorlekurik preziatuena den Madril hiriburua eta erkidegoa, urrunetik behatuta serio hartuko ez genituen hautagaitzez jantzia dena, urdinez tindatu da erabat: gobernu absolutua eskuratu du PPk bi erakundeetan. Bai, politika instituzionaleko teatroaren gorena direnek ezkerreko hautagai guztiak zanpatu dituzte, eta ez dute inoren aprobaziorik beharko nahi dutena egiteko, gutxienez, datozen lau urteetan.

Madrilen bada bestelako bizi-filosofia bat. Zera hori, garagardoaren kultura libreak eta bikotekide ohiek arazorik ipintzen ez duten askatasunak girotutako atrezzo mundiala, nazioarteko eskaparatea. Madril Espainia da eta Espainia Madril da, eta 17 autonomia erkidegoetako herritarrek hautatzen duten Espainiako Gobernuarekin ados ez baldin badago erkidego jakin horretako presidentea, lasai egon, erkidego horrek egingo dio-eta oposizioa. Alegia, "askatasuna" aldarrikatu eta zanpatu komunismo berantiarra eta merkea. Erkidego bihurria, horixe bera. Espainiako irrati-tertulia batean entzuten nion bati: Díaz Ayuso, batzuen begiradarako Dulcinea Tobosokoa dela eta, aldiz, beste batzuentzat Aldonza Lorenzo. Kixote ala Santxo, nor zaren zu, horretara mugatu da auzia.

ESPAINIAKO ALDERDI POPULARRA

Andaluziako zortzi hiriburuetatik zazpi bereganatu ditu PPk; Madrilen, erkidegoan eta udalean, gehiengo osoa izango du

Lokatzetan sartu eta ez sartu ibili gara geurean, baina sartzen saiatu ez eta azkenean sartu dena, Espainiako Gobernua izan da. Aspaldi hasi zuen kanpaina PSOEk, astez aste egin ditu Interraileko bonu, zineko sarrera eta besteko laguntzen iragarpenak, baina ezer gutxirako balio izan dio, bistan da. Uste zuena baino are eskuinagotik aurreratu dio Díaz Ayusok, eta etxean, alegia, berari botoa eman zekiokeenengana zuzendu baino, Espainiako Estatu osoan zentratu du kanpaina. "ETA, zergak eta okupak", horietxek izan dira bere hiru lerroak. Eta indarkeriaren izua zabalduta, argi esanda gainera zeintzuk ziren asmoak: gehiengo osoa eskuratzea. Eta ze kuriosoa behin eta berriz EH Bilduri harrika ibiltzea, udal eta foru hauteskundeak izaki, bateko herritarrek ez dituztelako besteko hautagaiak aukeratzen. Pentsa, euskaldun *peperoak* ere nazkatuta daude ETArekin politika egiteaz... bestela entzun Mikel Lezama Gipuzkoako hautagaia, guztiekin akordioak egiteko pronto agertu dela. Antzera mintzatzen zen garai bateko Maroto ere, edo orduko Sémper –orain itzuli dela, nork daki, akaso aldatu du "alderdi eta kolore guztietako jendearekin hitz egitearen aldeko jarrera"–.

Baina gipuzkoar politikari *peperoen* buruek ez lukete dolar askorik balioko erakunde arteko politiken Western-ean. Eta Núñez Feijóorenak ere, momentuz, ez asko. Orain, txupina bota duela tasatuko da bere prezioa. Hobe luke ipurdia ongi babestuko balu, Kixoteak azaltzeko asmoa izan dezake-eta. Ikusitakoak gara Madrilgo Dulcineak zer egin zuen Pablo Casado eta enparauekin. Orain, denek elkarrekin ospatu dute igandea, baina ea nork bizirauten duen, eta ze preziotan jakina. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

Gaituzte

UXUE APAOLAZA LARREA

Hauteskunde kanpainek eta gauek eskaintzen didaten adrenalinaldira pozik murgiltzen naiz aukera dagoen bakoitzean. Sistemak eskaintzen didan kontrolpeko abenturara. Gurean egiten diren hauteskunde guztiei, hala ere, "EAJren autoestima ariketak" esaten nien, grazia gutxiz, gurean hauteskundeak ere, beti berdin amaitzen baitira. "Zergatik sinetsi dut berriro". Aurten ere horretarako prestatu nintzen. Tiro baten oihartzuna berpiztera zetorren titular batek egin zuen kirrinka.

Tira, ba fokoa beste nonbait jarri beharko nuen, telebista publikoaren funtzioan, esaterako, gure telebista publikoarena. Hauteskunde eztabaidak zenbat, zenbat hizkuntza bakoitzean, euskarazkoak hala ikusi nahi ditugunek merezi dugun mailan egiteko hautagaien gaitasunaz. Indarkeria zantzuak zituen Gasteizen aurkitutako gorpuak.

Eta bat-batean ez, sondeoak ikusten hasi orduko, hasi dira *aiamak*, eta lagunen batekin komentarioa "itxaropenaren tortura ere ez digute barkatuko", "gero, dena berdin geldituko da". 50 urte zituen Oriokoak. Baina oraingoan ez, EAJ bat-batean ez da mugiezina, zerbait aldatu da, poz kolpe bat sentitu dugu. 32 Gasteizkoak, eta hiru urteko haur batek orduak pasa ditu ama hilaren ondoan.

Nire pozek, tangoetakoek bezala, gutxi irauten dute, beti daude tragediaren bezperan. Ez gara independenteak, eta urdinez jantzitako Espainiari azken unean baino begiratu ez badiogu ere, hark irents gaitzake laster. Agian uste nuena baino gutxiago aldatu dira gauzak. Eta Espainiak Ayusoren irribarreaz begiratzen digu, Voxen errekonkistarako deiaz. Eta arnasa hartu ezinik amaitu dugu gaua, beldurrak ia bat. Bi hil gaituzte. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

TEKNOLOGIA

Beste teknologia bat, beste politika bat

DIANA FRANCO

Gizakion historiako eraldaketa nagusiak memoria kanporatzeko eta transmititzeko teknologiekin suertatu dira. Lengoaia eta bere espresio idatziaren teknologiaren garapenak gure gizarteen garapenerako funtsezkoak izan dira. Noizbait, gainera, gure gorputzaren memoria ere kanporatzen hasi ginen, makinen bitartez, gorputzentzat neketsuak diren lanak gainetik kentzeko.

Sortzea gizaki guztiok dugun ahalmena da. Sortzea, ordea, ez dago gizaki guztion eskura. Sortzeak eta sorkuntza gizarteratzeak kostu handia dute eta horren bueltan legeak eta merkatuak sortu dira, klase sortzaile eta banatzaile bat mantentzeko. Testu, musika, poesia, software, diseinu eta abarrek, ordea, natura askea dute, inork ezin du kontrolatu kalean entzundako abestia kantatuko ez duzunik, ikusi duzun diseinua errepikatzeko ahalmena izango ez duzunik.

Egun, sortzeko modu berriak garatzen gabiltza, gure herri, kultura eta aukeretan eragiteko botere handia dutenak. Eraldaketa hau ulertu ezinean, gehienok gertatuko denaren begirale hutsak gara. Egiteko modu hauek sorkuntza legeen baitan babesturik daude, konplexuak dira, ezin ditugu ikuskatu, eta ondorioz ezta errepikatu ere. Baina ikuskatu ezin dugun teknologia hau ulertzera itxaron behar dugu? Hain babestuta dagoen teknologia gure eskuetan izan arte geldirik egon behar dugu? Zaurgarri egingo ez gaituen beste teknologia bat sustatzeko aukerak aztertu behar direla uste dut, eta horretarako beste politika bat behar dugula. ●

EZTEI-BIDAIA BAT SRI LANKARA, EDO ERREGAI FOSILIK GABEKO ETORKIZUNERA

Erregai fosilen agortzeak ekarriko duen mundu arraro eta ezezaguna nolakoa izango den zail da asmatzea. Baina gaur egun jadanik ikus ditzakegu zantzu batzuk Hegoalde Globala deituriko herrialdeetan, beti bezala orain ere pobreenek pasako baitute okerren. Joan den urtetik hondamendi egoeran dagoen Sri Lanka bihurtu da energia krisiaren ispilua.

URKO APAOLAZA AVILA

Ondoko kaleko bidaia agentzian pakete turistikoa erosi eta Asia hegoekialdeko herrialde exotikoren batera joatea, bizitzan behin egin beharreko zerbait bihurtu da klase ertaineko europar askorentzat. Ez baldin bada ikasketak bukatzerakoan, ezkonbidaian joan zaitezke bikotearekin, eta bestela berrogeiak betetzerakoan koadrilarekin. Iberia edo Qatar Airwayseko hegazkinek eramango zaituzte, diesela upelka dariela ipurdiko zulotik. Baina diesela da juxtu gero eta gehiago falta zaiguna, eta hori ondo dakite azken urteetan turistak jasotzera ohituta zeuden Sri Lankan.

Duela urtebete inguru, 2022ko maiatzean Donostia ingurukoa omen den bikote ezkonberri bat herrialde hartara ezteibidaian iritsi zenean, gertatzen ari zena ezin sinetsita haietako batek Twitterren kontatu zuen ikusitakoa. Ez da iturri oso konbentzionala, eta irakurlea fidatu daiteke ala ez gure kontalari anonimoak hitzez hitz dioenaz. Baina ileak zutik jartzeko modukoa bada hark Sri Lankan aurkitutako errealitate distopikoa: "47 jarraitzaile ziztrin besterik ez ditut (asko maite zaituztet), eta badakit ez dudala oihartzun askorik izango, baina Sri Lankak bizi duen egoeraz hari hau konpartitu nahi dut zuekin, herrialde horretan nagoelako oraintxe bertan oporretan". Uste zuenaren kontrara, bere mezuak berehala zabaldu ziren sare sozialetan.

Turista harrituaren txioa aipatu zuenetako bat Antonio Turiel fisikari eta ikertzailea izan zen. Hain justu, berak jarri gintuen Sri Lankaren lorratzaren atzetik, duela bi aste ARGIAn egin genion elkarrizketan. Turielen esanetan energiarekin "atzeraldi handia" datorkigu, eta datozen hamarkadetan %80 gutxitu beharko dugu kontsumoa: "Hau jadanik gertatzen ari da, banaketa ez delako homogeneoa; Sri Lankan adibidez askoz gehiago ari dira nabaritzen", dio fisikariak. Hemen ere, beste gauza gehienetan bezala, desberdintasunak baitaude herrialde pobre eta aberatsen artean.

1948. urtera arte Britainiar Inperioaren kolonia izandakoa, Tamil herriak azken hamarkadatan eramandako borrokagatik egingo zaio ezagun irakurle euskaldunari Indiako azpikontinentearen muturrean dagoen irla hori. Berrikiago, Sri Lankak 2022ko uztailaren 9an egin zuen jauzi munduko hedabide nagusietara, milaka herritarrek Colombo hiriburuan presidentearen egoitza asaltatu zutenean. Hiru egun geroago, Gotabaya Rajapaksa presidenteak ihes egin zuen Maldivatarako abioia hartuta. Rajapaksa familiak Sri Lankan "erregimen oligarkikoa" zuen ezarria aspalditik. Lurraren Adiskideen Sareko Hemantha Withanage ingurumen aktibista srilankarrak erakunde horretako webgunean botatzen dizkien loreak ez dira nolanahikoak: nepotismoa, ustelkeria, botere gehiegikeria, diru publikoaren lapurreta… Horiek dira rajapaksarrek beren herriari opari utzitako legatua.

Herrialdeak hilabeteak zeramatzan egoera jasanezinean. Pandemia aurretik zetorren zorpetze itogarriaren ondorioz, inportaturiko erregaiaren prezioa izugarri garestitu zen, are gehiago Ukrainako gerra piztu zenean, eta agintariek milaka milioi rupia –hango moneta– inprimatzeko harturiko erabakiak inflazioa leherrarazi zuen. "Sri Lankako esperientziak irakasgai garrantzitsua dakar: politika neoliberalek edozein herrialde krisira eraman dezaketela", dio Withanagek bere artikuluan. Gobernuak papurrak eskatu behar izan dizkio Nazioarteko Moneta Funtsari –3.000 milioi dolar– estatuarena den Ceylon Petroleum Corporation (CPC) konpainia salbatzeko, eta gaur egun BlackRock bezalako inbertsio funtsei dago salduta ia irla osoa. Askoren ustez Sri Lanka da erregai fosilen amaierak dakarkigun krisi energetikoaren lehen biktima eta etorkizuneko ispilua.

HIRU FAMILIA, HOZKAILU BAKARRA

Baina itzul gaitezen 2022ko maiatzeko ametsetako ezkonbidaiara: "Hemen duzue bideo bat jendea ilarak egiten agertzen dena… ilarak zertarako? Erregai depositua betetzeko. Momentu honetan pertsonako 15 litroko muga dute gasolindegian". Errazionamendu hori ezarri zuen Rajapaksak gasolinaren eskasia hasi zenean. Baina erregai faltak dena jarri zuen hankaz gora, ez soilik mugikortasuna: "Herrialdeko zentralen gehiengoak erregai fosilekin funtzionatzen du, eta hori erosteko dirurik ez dutenez, jendea hamabi orduko

ARTE TV

NAZIMA

Hala izena du Arte telebista katean eskaini duten dokumentaleko protagonistetako batek. Sri Lankako Colombo hiriburuan bizi da seme-alabekin eta senarrarekin, eta euren soldatekin apenas eros dezakete barazkirik. Azken bi urteetan, energia krisiak janari eskasia eta inflazio izugarria eragin ditu herrialdean. Irudian, dendaria Nazimak emandako rupia sorta kontatzen, zereal poltsakada txiki baten truke.

argi mozketak jasaten ari da", zioen gure txiolariak. Bere mezuak irakurtzen jarraitzea, ikusi nahi ez dugun etorkizun ilun horretan barneratzea bezalakoa da: "Gaur gobernuak erregaiaren prezioa eguneratu du eta 400 rupia balio du orain, atzo baino %30 gehiago", "Bi militar jarri dituzte gasolindegi guztietan", "Guk fruta batzuk ordaindu ditzakegu euroak ditugulako, autoktonoei ez zaie burutik ere pasatzen"...

Urtebete geroago munduari ahaztu zaio Sri Lanka nola dagoen, baina kolonizatzaile sarraskijaleei ez. Pasa den astean gobernuak hitzarmena sinatu du Txinako Sinopec petrolio konpainia erraldoiarekin; horren arabera CPC konpainia publikoak dituen estatuaren jabetzako surtidore ugari haren eskuetara pasako dira hogei urtez, erregaiaren finantzazioaren truke. Ez da hori harturiko erabaki bakarra. Energia Atomikoaren Batzordeak onespena eman dio lehen zentral nuklearra eraikitzeari, "Errusiaren laguntza teknikoarekin", Sri Lankako Parlamentuaren webgunean irakur daitekeenez. Albiste berean esaten da Saudi Arabia interesaturik dagoela Sri Lankako koko-zuntzarekin, desertuan landatu nahi dituen 10.000 milioi arbolen ongarritarako... "Dibisa kopuru handia lor dezakegu", esan zuen Parlamentuko diputatu batek. Emeterio Arresek idatzi zuen moduan, ez ote dira alferrik ari Iparragirrek utzitako zaku diruaren bila?

Energia krisia zauri sakonago baten beste katebegi bat da, kapitalismoak arazoak elkar lotzen baititu sarritan. Hori gertatu da Sri Lankan. 2021ean Gobernuak neurri harrigarria iragarri zuen: ongarri kimikoak debekatu zituen. Dirua aurreztekо noski. Baina aurretik kimikoz dopatuta zeuden lurrek nekez eman zuten uztarik bapatean ekologikoan landuta, eta gosea zabaldu da herrialde osoan. Orain atzera egin dute, baina ongarriak izugarri garestitu dira energia krisiaren ondorioz.

Arte telebista kateak *Sri Lanka: les affamés de la crise* ("Sri Lanka: krisiaren gosetuak") dokumentala eskaini zuen otsailean –gaztelaniaz ere azpidatzita–, Arnaud Guiguitant kazetariaren eskutik. Nazima da protagonistetako bat, Colomboko Maradana auzoko ama: "Bizitza gogorra da Sri Lankan. Kezkatuta nago nire seme-alabengatik, badirudi dena okerrera doala eta ez dakit erresistituko dugun". Berak eta bere seme-alabek beste bi familiekin konpartitu behar izan dute etxea eta hozkailua. Agian etorkizuna gaur da, hiru zatitan banatua. ●

ZINKUNEGI OPTIKA
Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com

Iker Bengoetxea

BIKOIZKETAREN ALDARRIKATZAILEA

EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN, BIKOIZKETAK ENTZUMENA LANTZEKO ONURA HANDIAK EKARTZEN DITU

Euskarazko bikoizketa kinka larrian dago. Egunean hamalau ordu ematen dituzte gazteek, batez beste, pantailen aurrean. ETBk bikoizketa baztertu du azken bi hamarkadetan eta streaming plataformetako euskarazko eskaintza ez da %0,1era iristen. Iker Bengoetxeak ahotsa eman die pertsonaia askori eta kontziente da zeinen onuragarria den euskara ahalik eta gehiena aditzea, gero euskaraz aritzeko. Zer entzun, hura ikasi.

REYES ILINTXETA DANI BLANCO

Nolakoa izan zen zure hasiera?

Artista sena txikitatik izan dut, baina oso lotsatia naiz. Etxean musika asko entzun izan da beti eta familian musika beti egon da presente: aitona txistularia zen, Berako Josu Goia polifazetikoarekin harreman estua izan dut... Ikastolan txistuarekin hasi eta gero abesbatzara pasa nintzen. Umetan arrebarekin beti dantzan eta imitazioak egiten ibiltzen nintzen, baina gero jendaurrean jartzea asko kostatzen zitzaidan. Hala ere, 16 urte nituela kuadrillakoek Seihots taldea osatu zuten eta abeslari izatea proposatu zidaten, eta baietz esan nien.

Eta antzerkirako jauzia nolakoa izan zen?

Golden Apple Quartetekoek casting bat egin zuten haurrentzako antzerki musikal bat egiteko eta aurkeztu nintzen. Komediarako joera zuten abeslari aktore euskaldunak behar zituzten eta hor aukera bat ikusi nuen. Hautatu ninduten eta hiru muntaiatan aritu nintzen haiekin lanean. Hura izan zen nire aktore eskola.

Bikoiztaile gisa nola hasi zinen?

Bikoizketa beti gustatu izan zait. Madrilen ikasitako batzuek Iruñean bikoizketa eskola bat zabaldu zuten eta bertan eman nuen izena. Interpretatzea zen, baina itzalean, ez jendaurrean, eta horregatik ikusten nuen egokia niretzat.

2003an hasi nintzen pixkanaka euskarazko bikoizketetan lanean pertsonaia txikiak egiten lehenbizi eta handiagoak gero. *Berebiziko espioiak*, ETBn behin eta berriz ematen duten telesail bat, *Happy Feet* pinguinoa, *Eragon*, *Animalia* telesaileko Iggy iguana, edo *One Piece* eta *Pokemon* telesailetako kanten abeslaria ere izan nintzen, besteak beste. Garai hartan telesail batzuetan hartu nuen parte Madrilen eta tentazioa izan nuen han gelditzeko, baina niri euskaraz egitea gustatzen zait eta lan faltarik ez nuenez, hemen gelditzea erabaki nuen.

Iker Bengoetxea Goya

IRUÑEA, 1978

Bikoiztaile, aktore eta kantaria da. Enpresa Zientziak ikasi zituen, Kultur eta Sormen Industrien Zuzendaritzan masterra egin zuen gero, eta gaur egun Nafarroako Antzokien Sarean eta Dantzaz Konpainian kudeaketa lanak egiten ditu. Bieuse Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteko kidea eta Sudurgorri Vocal Studioren sortzaileetako bat da. Bere ahotsa publizitate eta bideo korporatibo askotxotan entzuten dugu eta aktore eta kantari liriko bezala ere hainbat antzezlan, zarzuela eta opera saiotan parte hartu izan du.

Azken hogei urteetan ETBren bikoizketetarako aurrekontuak etengabe murriztu dira. Nola eragin dizue profesionalei?

Gaur egun bikoizketak egiten ari dira, baina garai batean baino askoz gutxiago. ETB da ikus-entzunezkoen euskarazko bikoizketen eragile handiena. Euskarazko bikoizketak 80ko hamarkadan bizi izan zuen unerik gorena, ETBn urtean 2.000 ordu inguru bikoizten zirenean. Laurogeita hamarreko hamarkadan, denbora hori erdira murriztu zen eta 2021ean 200 ordu eskas bikoiztu ziren euskarara, ia guztiak marrazki bizidunetan. ETBk dio azkenaldi honetan handitu duela bikoizketen kopurua, baina hor desberdindu beharko litzateke zer den euskaraz bikoizten dutena eta zer gaztelaniaz ETB2n emateko, askotan dena zaku berean sartzen baitute.

ETBren aurrekontuen murrizketak direla eta, lan baldintzek ere behera jo dute urtez urte. Mixer estudioa da euskal telebistarako euskarazko bikoizketaren esleipena duen enpresa eta oso baldintza eskasetan aritu izan dira lanean. Hori izan zen Bieuse elkartea sortzeko arrazoietako bat 2018. urtean. Elkarte horretan bildu ginenok erabaki genuen Mixerentzat lanik ez egitea, baina beste profesional batzuek, aldiz, jarraitu zuten haiekin lanean eta hor galdu genuen denok batera joateak ematen ahal zigun indarra.

> ***Euskararen normalizazioaz hitz egiten denean argi gelditzen da bikoizketak entzumena lantzeko onura handiak ekartzen dituela"***

Haiek dira orain bikoizketa lan guztiak egiten dituztenak?

ETBrentzat, bai. Jende kopuru txikia gelditu zen eta, nire iritziz, kalitateak ere behera egin zuen. Egia da jende berria sartzeko aukera bat izan zela, eta enpresa horretan formazioa eta lan egiteko modua azkar eskaini zietela. Hori ona izan beharko litzateke sektore batentzat, erreleboa eta talentu berriak beti direlako beharrezkoak, baina lanbide hau ez da egun batetik bestera ikasten eta aktore taldeak osatzeko arazoak bistan geratu dira. Kasu batzuetan ongi prestatuta egon baino lehen ari dira pisuzko pertsonaiak egiten, nire ustez, eta horrek eragin handia izan du produktuaren kalitatean.

Eta Bieusen zaudetenok zertan ari zarete?

Orain Bieuseko kideek kooperatiba bat eratu dugu, guk geuk lan batzuk zuzenean egin ahal izateko. Zinemaldirako film pare bat egin izan dugu, *Harrapatu bandera* eta *Tadeo Jones II*, nik neuk Tadeoren papera egin nuen, eta beste estudio batzuekin ere ari gara lanean. *Artxipelagoa* edo *Harresi ikusezina* podcastak egin dituen Ulu Media estudioarekin, adibidez. Bieuseko ahots mitiko batzuk, Iñaki Beraetxe edo Klara Badiolarenak, esate baterako, han entzun daitezke. Orain plataforma handiekin zuzenean ari gara hizketan eta espero dugu laster berri onak izatea.

Estatuaren ikus-entzunezkoen lege berriak adierazten duenez, plataforma pribatuek ematen dituzten edukien %6 katalanez, galegoz eta euskaraz egindako lanak izan beharko dira. Horrek ate berriak irekiko ditu?

Bada aurrerapauso bat, zalantzarik gabe, baina IBAIA ekoizleen elkarteko Jon Artatxok dioen bezala, ongi legoke jarraipen batzorde independente bat eratzea gutxieneko horiek toki guztietan betetzen direla bermatzeko. Lege eskakizunari gehitu behar zaio azkenaldi honetan gizartea egiten ari den presioa euskarazko edukiak presente egon daitezen plataforma handi pribatuetan. Pantailak Euskaraz ekimena, esate baterako, lan itzela egiten ari da, eta egia da aldaketak sumatzen hasi direla. 2021etik 2022ra pixka bat handitu dira euskarazko ikus-entzunezkoen kopuruak: Filminen 65tik 108ra pasa dira, Netflixen 3tik 85ra, Prime videon 2tik 71ra eta HBOn 0tik 4ra. Beste batzuetan, Disneyn bezala, oraindik ez dute ezer egin.

Azken urteotan Netflixen dezente ari dira lan egiten galegoz eta ematen du euskararekin ere halako bidea eginen dutela. Guretzat oso positiboa da eta lan aukera berri bat. Plataformetatik etor daitezke orain zuzenean enkargu horiek. Hor ez da ETB ez gobernurik sartzen. Merkatu librea da eta plataforma batek ikusten badu estudio batek txukun egiten duela lan, badu

harekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera proiektu bat abiarazteko. Gainera, prezio merkearen gainetik kalitatea jartzen dute normalean, ez ETBk bezala, eta horregatik, uste dut aukera onak egongo direla lan oso txukunak egiteko hemendik aurrera. Bieuse kooperatibako administrariak jo eta ke ibili dira lanean leiho horri begira. Badugu haize berriak etorriko diren itxaropena.

***Primeran* euskarazko streaming plataforma berria aurkeztu du ETBk eta udazkenean abiatuko da. Bultzada bat emanen die bikoizketa eta azpidatziei?**

Positiboa izango da, zalantzarik gabe. Euskarazko plataforma bat izatea, eskaintza dena delakoa izanda ere, beti ona da. Ea zertan gauzatzen den asmo hori. Kanpoko fikziozko lan berriak ekarriko dituztela iragarri dute. 400 orduko telesail eta film multzoa, baina ez bikoiztuta, azpidatzita baizik. Ni ez naiz sartuko azpidatzi eta bikoizketaren arteko borroka horretan, asko hitz egin delako horretaz, baina argi dago ETBk azpidatzien alde eginen duela. Iruñean maiatzaren hasieran egindako jardunaldi batzuetan Unai Iparragirre ETBko zuzendariak esan zuen gazteek, batez ere, azpidatziak nahiago dituztela bikoizketak baino. Uste dut eztabaida hori aspaldian gainditua dagoela eta onena litzateke botoi bat sakatuta ikusleak aukeratu ahal izatea nola ikusi nahi duen gauza bakoitza. Ikusteko dago, bestalde, zenbat diru inbertitzen duten lan berriak egiteko eta zenbat kanpoko lanak bikoizteko edo azpidazteko.

Oro har, badirudi ETBren apustua izanen dela bertako ekoizpen berriak sustatzearen eta kanpoko edukiak azpitituluekin eskaintzaren aldekoa. Gu ere ekoizpenaren alde gaude, inolako zalantzarik gabe, baina tranpa egitea iruditzen zaigu aurrekontuak egiterakoan edo diru laguntzak ematerakoan ekoizpena, bikoizketa eta azpidatziak zaku berean sartzea. Gauza desberdinak dira eta gizarteak hirurak behar ditu. Ez dezagun dena nahas.

Izan ere, atzerriko fikziozko eduki indartsuak ekarri ez izana izan da euskararen erabileraren beherakadaren arrazoietako bat azken urteotan.

Azken hitza

EUSKARRI PUBLIKOA

"Hizkuntza txiki guztietan bezala, euskarazko bikoizketak euskarri publikoa behar du, ez baita jasangarria termino komertzialetan. Hala ere, duela urte batzuetatik Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren apustua oso bestelakoa da. Eusko Jaurlaritzak Zinema Euskaraz programarako film gutxi batzuk bikoizten ditu urtero –2021ean bederatzi izan ziren, 20 ordu baino ez–. Eta EITBrekiko egoera ere ez da askoz hobea, 1990eko hamarkadaren amaieran euskarazko bikoizketa alde batera uztea erabaki zenetik".

Noraino da onuragarria bikoizketa erabilerarako?

Asko hitz egin da horretaz, eta duela lau urte mahai gainean gaia jarri zenean guk geuk, bikoiztaileek, ohartarazi genuena horretaz. Gaur egun, ordea, gizartea eta Euskaltzaindia, Kontseilua eta euskararen beste eragile asko ari dira hori azpimarratzen. Euskararen normalizazioaz hitz egiten denean argi gelditzen da bikoizketak entzumena lantzeko onura handiak ekartzen dituela. Adituek diotenez hizkuntza bat belarrietatik sartu eta ahotik ateratzen da.

Gure gazteek batez beste hamalau ordu ematen dute pantailen aurrean, eskolan eta etxean, eta aisialdian kontsumitzen duten ia guztia euskara ez den beste hizkuntzetan egoten da. Fikzioa, sare sozialak, podcastak eta eduki bikoiztuen bidez asko lagundu daiteke belaunaldi gazteen euskara maila hobetzeko. Baina horretarako mota guztietako edukiak hartu behar dira aintzat, eta ez soilik umeentzako marrazki bizidunak.

Aurrekoan Twitterren eztabaida bat sortu zen aita batek esan zuenean ez zuela bere alabari eskolan emandako eritasun baten inguruko testua ulertzen, hitz oso "arraroak" agertzen zirelako. Juan Luis Zabala idazleak erantzun zion ETB1ek *House doktorea*-ren atal guztiak eman balitu euskaraz bikoiztuta, ez zuela inolako arazorik izango dena lehenengoan ulertzeko.

Nola ikusten duzu zuen etorkizuna?

Ahotsaren mundua oso zabala da. Ulu Media estudioarekin, adibidez, hainbat soinu fikziotan lanean ari dira orain bikoizketa aktore batzuk, eta gainera, badirudi eduki batzuk ele-biz egingo dituztela, hemendik kanpora ere eramateko. Hor beste mundu bat zabaltzen ari da lan egiteko. Beste hainbat estudiorekin harreman onak ditugu eta alboan izan ditugu beti.

Duela bi urte galdetu izan bazenit esango nizuke oso beltz ikusten nuela dena bikoiztaile gisa, baina gaur egun baikorrago nago, zer edo zer mugitzen ari dela ikusten delako.

Proiektu propioen atalean, pozik gaude Sudurgorri Vocal Studio marka martxan jarri genuenetik. Hainbat publizitate agentzia eta bideo egilerentzat ari gara ahotsekin lanean eta ahots formazioa ere gure pasioetako bat da.

Pertsonalki, niri RTVEn egiten dituzten soinu fikzioen antzeko zerbait egitea gustatuko litzaidake, hau da, antzerki lanak irakurri antzoki batean, aktoreekin eta publikoaren aurrean. Hori zuzenean egin eta emititzen dute. Mundu horrek asko erakartzen nau eta agian guk geuk egin beharko genuke…

Zer da zailena lanbide honetan?

Bikoiztaile lanaren gakoa ez dago ahotsean. Ahots guztiak dira politak eta beharrezkoak, baina antzezten jakin behar da. Aktorea behar duzu izan eta aktore ona izatea ez da lortzen gauetik goizera. Etengabeko ikasketa da hori. Sinkronizazio teknika ikasi eta landu behar da hasieran eta hortik aurrera hasten da interpretazio lana. Horretarako zuzendari bat duzu aldamenean eta horrek zure onena ematen laguntzen dizu. Malgutasuna ere behar da. Gaur egungo bikoizketa teknika ez da garai batekoa bezalakoa. Lehen, orokorrean, gehiago proiektatu egiten zen ahotsa. Gaur egun, zinema egiteko modua askoz naturalagoa da eta, kasu horietan, bikoizketak ere halakoa behar du. Azken finean, jatorrizko bertsioan egin dutena islatzean dago gakoa. ●

Denboraren bizitza, bizitzaren denbora

IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Hasi al zarete udako oporraldia prestatzen? Hegaldia hartu al duzue dagoeneko? Goi-denboraldia izanda, modako tokietan erreserbak berehala agortzen dira, beraz, azti ibili! Kontuan hartu denbora urrea dela, eta aisialdiko parada ongi antolatzea ezinbestekoa dela probetxuzkoa izateko. Estresa eragin dezaketen auzi horien zurrunbiloan topatu ohi dugu geure burua oporraldiren bat gerturatzen den bakoitzean. Hainbaten arabera, osasun arazoak ere sor omen ditzake kontu honek.

Gaiak funts gutxikoa dirudien arren, ikerlan mordoa topatu dut sarean, eta neure inguruan ditudan lagunekin hausnarketa biziki interesgarriak sortzeko bidea ireki dit gainera. Agerikoa denez, aisialdia ulertzeko moduak askotarikoak dira, eta denboran zehar aldaketak ere izan dira. Baina bada ziurra den zerbait kontu honekin: aldaketak aldaketa, aisia izatea eta horren kudeaketa, lanari esleitutako denborari loturik egon dira beti, Brad Aeon Quebec-eko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak dioen legez. Txanpon beraren bi alde izango balira bezala.

Denboraren kudeaketa izenda genezakeen gai honek badu erroan hausnarketa filosofikorik; antzinako Greziako Sokratesen garaitik (edo are lehenagotik, nork jakin!) galdetu izan diogu geure buruari bizitzak zentzua izateko eta gustura bizitzeko eginbeharrekoen inguruan. Eta horrek, halabeharrez, bizitza ororen giltzarri den denbora jartzen du erdigunean. Mugatua den denbora. Gizakiaren historiaren bilakaeran aisialdi hitzaren presentzia anekdotikoa izango da ziurrenik; neronen aitonaamonen belaunaldia izan liteke mugarri. Izan ere, denbora libre gutxi izango zuten etxeko lan, zaintza eta nekazaritza-lanen artean. Beharbada, egun aisialdian egin ohi diren hainbat ekintza goi-klaseko gizartearen esku egongo ziren garai hartan.

> Momentuko plazerean fokua jarri ordez, sare sozialetan zintzilikatu ohi ditugu probetxuzko gure bidaiak. Lehia moduko baten itxura ere hartzen du

Gaur egun, denboraren kudeaketa hobetzeko, hots, gauzak hobeto eta azkarrago egiteko, teknika eta oharren inguruko aholkuak entzun eta irakur ditzakegu nonahi. Efizientzia eta produktibitatearekin uztartu ohi dira ideia asko, eta erroko hausnarketak egonik ere, bakanak eta azalekoak izan ohi dira. Aisialdia ere ahalik eta ondoen maximizatzeko *tip* ugari aurki ditzakegu; pentsamendu utilitaristaren itzalpean bizi gara deskantsuan ere. Askotan, gainera, orokortuak bilakatu diren eginbeharren zerrendak ardazten du gure denbora librea, hots, gure curriculum esperientzialak osatzeak itsutzen gaitu hainbatetan. Momentuko plazerean fokua jarri ordez, sare sozialetan zintzilikatu ohi ditugu probetxuzko gure bidaiak. Hainbatetan lehia moduko baten itxura ere hartzen duela iruditzen zait.

Produktibotasunaz gain, astialdiaren merkantilizazioaz ere hitz egin du hainbat autorek. Hammermesh ekonomialariak, esaterako, baieztatzen du ondasunak eta zerbitzuak erosi eta disfrutatzeko gaitasuna azkarrago handitu dela azken horietaz gozatzeko erabilgarri dugun denbora baino. Egiatan, kapitalismoak nahi du ziurrenik ere gu kontsumitzen egotea, bizitza kontenplatiboak ez baitu oraingoz etekin gehiegirik ematen.

Susmoa dut erroko hausnarketei aurre egitea dela erronka; benetan, norberak bere denbora nola kudeatu nahi duen erabakitzea. Eta askotan, erabaki hori hartzearen beldurrak paralizatu egiten gaitu, edota beste albo batera begiraz pasatzen dugu bizitzako denbora, inguruaren marea jarraituta. Denbora urrea omen da, dirua. Baina ondo asko dakigu denok ere, diruz erosi ezin daitekeen bakarra dela denbora, bizitza. ●

Iparrik gabeko pedagogia

TERE MALDONADO
FILOSOFIAKO IRAKASLEA

PAULA ESTÉVEZ

Badaude bizitza primeran antolatzen dutenak eta beste batzuk hain onak ez direnak egutegia atontzerakoan. Badira biziera eta pentsamolde karratuak dituztenak eta askeagoak (edo kaotikoagoak) direnak. Izaera desberdinak errespetatu behar direla onartuta (puntu bateraino, behintzat) gero eta beharrezkoago zaigu guztioi bizitza planifikatzea: lana, aisia, lagunak, familia. Hain da horrela, non denboralizazioa zientzia edo arte bilakatu baita berez, agendak, egutegiak eta ordutegiak lantresnak izanik, espazioan zehar gidatu beharrean, denbora antolatzen diguten mapak dira.

Irakasleok beti programatu behar izan dugu gure egitekoa, ikasturtearen ikuspegi orokorretik zereginak eta edukiak banatu, ikasgelan landu beharrekoaren sekuentzia astero antolatu, etab. Platonek berak Akademian, Aristotelesek Lizeoan edo Hipatiak Serapeonean, ikasketa-plan bat izan behar zuten, nahiz eta eurak, jakina, ikasgelara iritsi eta nahi zutenaz inolako plangintzarik gabe hitz egiteko gai ziren. Baina Platon, Aristoteles edo Hipatia izan behar da hori egin ahal izateko. Irakaskuntza arautuaren jarduerak planifikatuta egon behar duela begi-bistakoa da. Irakasleok ez ditugu ikasgaiak gure irizpide partikularraren arabera soilik jorratzen; aitzitik, aldez aurretik ezarritako ikasketa-plan bati zor gatzaizkio. Plangintzak koherentea izan behar du, hasiera eduki, garapena, amaiera, helburuak, horiek lortzeko metodologia, horrelako gauzak. Eta, jakina, helburuok bete ditugun ebaluatzea ahalbidetuko duten tresnak.

Pedagogiaren zati bat aritu da programatzeko arte ederrean infinituraino sakontzen, tematiparra galdu arte. Zuzen programatzeko jarraibideak eman dizkigute aspalditik, baina azken boladan kontua eskuetatik joan zaie, Sergio de Castro Sánchezek *El Salto* egunkarian bikain salatu duenez. Lortu nahi duten zehaztasun-maila zentzugabea da. Ikasgelan egiten dugun gauzatxo txikerrenaren aurreikuspen milimetrikoa, ikasleei eskatzen dizkiegun lantxo bakoitzaren helburuak (orokorrak, espezifikoak), gaitasunak (zeharkakoak, zehatzak), arazo-egoerak, ezagutza-edukiak, trebetasunak, ebaluazio-irizpideak, prozedurak... dena lotuta eta albainduta egon behar, dagokion laukian, dokumentuan, excell bukaezin eta zoroan.

Maizegi gertatzen da: bitartekoak eta xedeak nahastu egiten dira. Eta hara hor irakasle kidego oso batek, lan-jardunaldiaren parte handia laukiak betez eta mihiztatuz, atseden gabe, Antzinako Erromako esklaboek mosaikoen teselak ipintzen zituzten bezala, bata bestearen ondoan, aurretik emandako eskemaren arabera koloreak eta formak bat etorraraziz eta ahokatuz. Bai, Antzinako Erroman esklaboek egiten zuten lanaren eta gurearen artean ere aldeak daude: eurak ez bezala, pantaila barruan bizi eta lan egiten dugu guk (nor da esklaboagoa?); euren lanaren emaitza, mosaiko ederrak; gurea, milioika PDF zatar hodeian zintzilik.

Agintean, pedagogoek ahaztu dute gure ataza ez dela programatzea, irakastea baizik. Programazioek tresna (bitarteko, baliabide) izan behar dute gure lana hobetzeko, ez belar txarra bezala hazten den minbizia, lanaldiaren parte handi bat janda. Gogora dezagun Borgesek Inperio hartako Mapa Neurrigabeez kontatzen zuena: perfekzioaren bila, mapatutako lurraldearen tamainako mapa bat egitera ailegatu ziren bertoko kartografoak, baina halako mapa batek ez zuen ezertarako balio. Horrez gain, programatzearekin obsesionatuei jakinarazi behar diegu ikasgelan sarri inprobisatu egin behar dela. Iparra ez galtzen lagundu behar digute mapek. ●

Boto eskea, zortzi hizkuntzatan

AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Sua eta mina piztu dizkigu PSNren hauteskunde kartel eleaniztunak. "Barrenak behar dira Nafarroan 2023. urtean botoa zortzi hizkuntzatan eskatzeko, euskara baztertuta. Putakumeak. Urdeak. Ezta itxura egiteko ere".

Halako purrustadak irakurri dira egun hauetan Euskal Txio Herrian, zorioneko kartelaren kontura. Behin berriz, sozialistekin koleratzeko motiboak ez zaizkigu falta. Zintzoak izan gaitezen, dena dela. Hauteskunde txartel batez ari gara. Euskara gehitu izan balute ere, botoa emanen genien?

Aurten, mota guztietako datu soziologikoak argitaratu dira bozketen bezperetan. Inoiz baino gehiago. Inoiz baino ugariagoak. Izan da euskararen ezagutza ere gurutzatu duenik boto asmoarekin. Horren arabera, Nafarroan, euskaldunen %60k EH Bilduren txartela zeukaten prest hautetsontzian sartzeko. Bertze %40aren gaineko informazioa ebasten zigun delako albisteak. Hala ere, ez da uste izatekoa PSNrendako bazka handirik zegoenik aska horretan.

Ez da alde batera uztekoa gisa horretan moldaturiko kartel batean itxurakeriak zenbaterainoko karga duen. Euskaldunen aldera hain hotz dagoenak zertaz izan behar du berotasun handiagorik arabiar edo errumaniar hiztunen aldera? Hemen ez da sentiberatasun konturik, ordea, kalkulu hutsa baizik. Eta garbi dago PSNri, bere ikuspuntutik, errumaniera edo arabiera errentagarriak zaizkiola, euskara ez bezala. Garbi gelditu da hasieran: sozialista espainiarrak jende doilor eta mespretxagarria dira. Ez, ordea, ergelak

Euskal abertzaleei, jakina, ez zaie halakorik gertatzen. Euskal abertzaleak ez dira segurki ez doilorrak ez mespretxagarriak. Azkarragoak ote diren, aldiz, hori ez dago hain garbi.

PSNk atera du zortzi mintzairatan ondutako afixa, ez "gureek" alemana-edo kendu eta euskara sartuta. Javier Esparza (UPN) ikusi dugu egun hauetan Sanduzelaiko meskita bisitatzen, ez Uxue Barkos. Podemoseko zerrendaburuak bildu dira etorkinen elkarteekin, ez Joseba Asiron.

Horiek ere kalkulu hutsez ari zirela? Bistan dena. Zer da politika, bada, kalkulu hutsa ez bada?

Nafar berriak Erresuma Zaharreko biztanleriaren %20 izanen dira luze gabe. Herrialde honetan sortzen diren hiru haurretarik batek estatutik kanpo jaioa du aita edo ama; gehienetan biak. Hala ere, zer begi-kliska guti egiten zaien gure mundutik. Zein keinu guti hauteskunde hauetan ere. Zein arrotz ditugun. Zein arrotz gaituzten. Gero ikastoletan eta D ereduetan nahi ditugu. Baina, hara, ez dira etortzen. ●

Zarata

LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
IRAKASLEA

Tiobiboak heldu dira auzora. Berria naizenez bertan, ez nekien zenbat entzungo zen etxetik. Egia esatera, musika ez da ia sumatzen, baina baxuek dunba-dunba eragiten dute kristaletan. Goiz ixten dituzten arren, berbena hasi da ondoan. Bafleen potentzia larregikoa denez plaza honetarako, kantak ez dira ulertzen, eta musika burrundara bihurtu da.

Lanerako joan-etorriak trenez egiten ditut. Era eroso, merke eta garbia da. Oso gustuko dut horrela ibiltzea. Baina —beti dago bainaren bat— telefonoetatik ateratako poluzio akustikoak bidaiaren lasaitasuna zapuztu egiten du. Musika, bideoak, ahots-mezuak, *story*-ak, deiak... dira soinu-banda kakofonikoaren errudunak.

Adibide bi baino ez dira adierazteko zarata-aterrune gabe bizi garela, askotan kontziente ez bagara ere. Badirudi isiluneek hustasunean amilduko gaituztela, eta entzutezko *horror vacui* jasanezina zaigula.

Gero eta atzerakada handiagoa eragiten dit isiltasun bako bizitzak. Esango nuke pandemiak handitu zidala zarata gabe egoteko premia, ezinbestekoa, bestalde, buru bakea lortzeko, lasaitasuna iristeko.

Zarata-kutsadura zelan borrokatu? ●

1.387 kamera

AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Ertzaintzak 1.387 grabazio kamera erosiko zituela iragarri zuen Josu Erkoreka sailburuak iazko urrian. "Segurtasun Sailarentzat bideoa kudeatzeko plataforma integrala eta banakako kameren sistema" honen adjudikazioaren ebazpena maiatzaren 10ean argitaratu du Eusko Jaurlaritzak. Telefónica Ingeniería de Seguridad enpresaren 1,6 milioi euroko eskaintza suertatu da garaile. Telefónicaren ate birakarietatik politikari asko pasa dira, besteak beste, Nafarroako Gobernuko lehendakaria izandako Yolanda Barcina, edo Espainiako Defentsa ministro ohia den Narcís Serra. Aurkeztutako hamar lizitatzaileen artean Indra eta Prosegur zeuden.

Telefónica Ingeniería de Seguridad enpresak Ertzaintzari entregatuko dizkion kamerak Axon Enterprise AEBetako multinazionalarenak dira, taser pistolen fabrikatzailea, hain zuzen. 922 kamera izango dira euskal oasiaren hiru hiriburuetako herritarren babeserako patruilentzat, Brigada Mugikorraren Unitatearentzat 300 eta trafikoko hiru lurralde unitateentzat beste 100. Eusko Jaurlaritzaren helburuak omen dira "polizia-jarduketen gardentasuna bermatzea, delitu-egintzen aurrean frogak hobeto aurkeztea eta agenteen segurtasuna areagotzea".

922 kamera izango dira euskal oasiaren hiru hiriburuetako herritarren babeserako patruilentzat, Brigada Mugikorraren Unitatearentzat 300 eta trafikoko unitateentzat beste 100

2021. urtean "3i kusle" proiektu pilotua jarri zen martxan. Proba pilotu horretarako patruila agente batzuek 30 kamera erabili zituzten kalean. Kamera gehienak "Bilbo Zaharreko dispositibo berezian" erabili ziren. Aholkularitza teknikoa Idom enpresaren esku utzi zuen Segurtasun Sailak. Jon Arretxe idazlearen *19 kamera* liburua etorri zait gogora, baina errealitateak fikzioa gainditzen du.

Ertzaintzak ama-seme batzuk indarkeriaz atxilotu zituen Bilboko San Frantzisko auzoan 2020. urtean. Bizilagunak leihora eta balkoietara atera ziren agenteek erakutsitako jarreragatik protesta egitera eta auzokide batek dena bideoan grabatu zuen. Bilbo Zaharra eta SOS Arrazakeria elkarteek jakinarazi zutenez, Ertzaintzak hainbat auzokideren kontrako salaketak jarri zituen, agenteei irain egitea egotzita, eta isunik handiena bideoa grabatu eta sare sozialetan "baimenik gabe" zabaldu zuen emakumearen aurka bideratu zen. Afera hori European Network Against Racism (ENAR) elkarteak Europako Parlamentuari bidalitako txosten batean dago.

Kamera proiektu horiek Segurtasun Sailaren jarduera gidatuko duen "ardatz nagusietako batean" kokatzen dira: "Prozesuen digitalizazioa eta berrikuntza teknologikoa segurtasunaren erronkari erantzuteko tresna aurreratuak eta egokiak izateko". ●

ZUZENKETA: 2.826 zenbakidun azken alean akatsa dago Iñaki Barcenaren sinaduran, argazkia Andrea Bartolorena baita.

ARGIA Azoka

Prezioa **32** €

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Unibertsitateak eta hezkuntza sistemak eragindako arrakalak agerian

Unibertsitatera sartzeko proba egitear da milaka ikasle. Gure gizarte desorekatuan, azken helduleku eta esperantza beti da hezkuntza: aukera berdintasunaren ikur, igogailu sozialerako amets. Errealitatean, baina, pribilegiatuak pribilegiatu eta zapalduak zapaldu mantentzen dituen lasterketatik ez ote duen gehiago hezkuntza sistemak. Lasterketa horretan helmugara nor iritsiko den erabakitzen duten filtroek nola eragiten dute ikasleen arteko arrakalan? Zenbat dira unibertsitatera ailegatuko direnak eta unibertsitate urteei eutsi diezaieketenak? Zergatik dago gero eta unibertsitate pribatu gehiago? Zer dago ustezko meritokraziaren, kalifikazioen eta eskola-porrotaren atzean?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Euskal Herriko milaka ikaslek egingo dituzte EBAU (garai bateko selektibitatea) eta Baxoa ekainean. Presio bezainbeste espektatibarekin joango da bat baino gehiago, gustuko ikasketak egin eta bizibide on bat lortu ahal izatea helburu. Unibertsitatea igoera sozialaren ideiarekin lotzea ez da berria, baina krisi garaiotan desmitifikatu egin dela uste du Ikasle Abertzaleak antolakundeko Ibai Berezibarrek, "eta horren isla da gero eta jende gehiagok ikasten duela unibertsitatean, gero eta titulu eta master gehiago dituela jendeak, baina kontrara gero eta langabezia handiagoa eta prekarizazio gehiago dagoela". Antzera mintzatu zaigu Ernaiko Jon Arrieta: "Unibertsitatearen prestigioak behera egin du, gradu batekin ez duzulako ezer ziurtatuta eta prekaritatea nagusitu delako". Igogailu sozialaren ustea mantentzen dela dio Jon Diaz EHUko irakasleak: "Aurreko belaunaldian nabarmenagoa zen, baina oraindik ere bada igogailu soziala, edo jendeak irudi hori du gutxienez, dena delakoa ikastera baina unibertsitatera joan nahi hori badago. Ikuspegi sozialaz ari naiz, zeren alde ekonomikotik ikusten dugu nahiz eta unibertsitatera joan oso beltz dagoela lan merkatua". Dena den, lanpostu eta ordainsari hobeak lortzeko bidearekin identifikatzen dugu unibertsitatea, Jaione Apalategi NUPeko irakaslearen iritziz.

Boloniak graduen luzera murriztu zuen arren, praktikan graduek ez dute fitsik balio, masterra egin behar izaten da ondoren, eta horien kostua handia da

Kontuak kontu, unibertsitatean ikasteak zer suposatzen duen, kanpoan zein uzten duen eta unibertsitate pribatuek zein rol jokatzen duten jorratu aurretik, jo dezagun atzera hezkuntza ibilbidean, ikasleen arteko desoreka eta arrakalak ez baitira 18 urterekin hasten. Aukera berdintasuna printzipiotzat dugun arren, ikasle batzuek eta besteek etxetik dakarten motxila, ikastetxe batzuetatik bestera dagoen aldea (errealitate sozioekonomikoan, baliabideetan, pedagogian), akademizismo zurruna... badira desoreka eragile. "Hezkuntzak haur guztien beharretara egokitu behar du, baina ez da hala egiten –dio Jon Diazek–. Nota akademikoen eta lehiaren balioekin sortzen duguna eskola-porrota da, sistema joaten delako garbitzen, eta horri arazo sozialak, ekonomikoak, kulturalak... gehitzen badizkiogu, pentsa".

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Eskola gizartearen isla den heinean, gizartean ematen diren zapalkuntza eta arazoak ematen dira hezkuntzan ere, Jon Arrietaren hitzetan: "Hezkuntza ibilbidea ez da zerotik abiatzen den prozesu bat, faktore batzuen eragina du hasieratik, eta behar berezi batzuk baldin badituzu, orokorrean hezkuntza sistema honek ez ditu bermeak jartzen gainerakoen modu berean integratzeko eta aurrera egiteko". DBH eta Batxilergoan antolatzen den Ikama ikasle mugimendua ere iritzi berekoa da; hala azaldu digu Maialen Lagok: "Hezkuntza sistemak bultzatzen du ikasle profil jakin bat, ahalmen jakin batzuk dituena, tartean memorizatzeko gaitasuna, zazpi orduz eserita arreta mantentzekoa... baina milaka ikasle daude eskatzen diren molde horietan sartzen ez direnak, eta horiek daude gehiago porrotera kondenatuta. Irabazle eta galtzaileen arteko eredu honetan, nota onek egiten dute aurrera, laguntza behar duten ikasleek ez dute sarri laguntza hori jasotzen eskolan, eta dirua duena joango da akademiara eta klase partikularretara eta arinago egingo du aurrera".

Ibai Berezibarren ustez, sistemikoa da arrakala, eta "hezkuntza sistema kapitalistaren izaera bera da baztertzailea, ikasleen ongizatea eta ezagutza unibertsalaren transmisioa ez baititu lehenesten; ikasle zaurgarrienak hezkuntza prozesutik nola kanporatzen dituen ikustea besterik ez dago". Agurtzane Martinez Mondragon Unibertsitateko irakaslearen arabera, "gaur egun, duela urte batzuk baino gehiago gainera, eskolak mantentzen ditu pribilegioak dituzten umeen pribilegioak eta opresioak dituzten umeen opresioak. Diskurtsiboki denok diogu eskolaren funtzioa dela egoera hori orekatzea eta iraultzea, baina esango nuke gure egitekoekin hainbat eta hainbat kasutan egoera mantentzen dugula eta pribilegioak ez dituzten umeek segurtasun falta handiagoa dutela eskolan, dituzten beharrak ez direlako hain erraz onartzen".

MERITOKRAZIA FALTSUA ETA ONENENTZAKO ESKOLA

"Gehien ahalegintzen denak lortuko du arrakasta bizitzan, ideia hori saltzen zaigu, baita hezkuntzan ere, baina ideia horrek ez ditu faktore asko kontuan hartzen. Nota, eta ebaluazio sistema orokorrean, filtro sozialerako mekanismoa da, gaitasun jakin batzuk baino ez ditu aintzat hartzen (eta beste asko ez), memorizazioan oinarritzen da, eta baldintza ekonomiko ugari ezkutatzen dira nota baten atzean: etxeko egoera zein den, klase partikularrak ordaindu ote ditzakezun, zure herriko azpiegiturak zein diren...", dio Ibai Berezibarrek. "Gurasoen laguntza jasotzea, baliabideak izatea, eskolaz kanpoko jardueretan aritzeko aukera izan eta harreman afektibo egonkorrak mantentzea, integratuta egotea... Horrek guztiak positiboki eragingo du ikaslearen hezkuntza prozesuan eta notetan, eta alderantziz", Jon Arrietaren esanetan.

IÑIGO URIZ / FOKU

"Nota filtro sozialerako mekanismoa da, gaitasun jakin batzuk baino ez ditu aintzat hartzen, memorizazioan oinarritzen da, eta baldintza ekonomiko ugari ezkutatzen dira nota baten atzean"

Ibai Berezibar

"Jende asko geratzen da bidean, beraz malguagoak izan beharko genukeela? Curriculuma aztertu beharko litzateke, ea nola aplikatu behar den, bidezkoa den, arrakala areagotzen duen..."

Juan Karlos Lopez-Mugartza

Ikastetxe batzuetan notak puzten dituztela albiste izan berri den honetan, ikasle batzuek curriculum eta ebaluazio malguagoekin, beste batzuek curriculum eta ebaluazio zorrotzagoen pean egiten dute bidea, eta bigarren horiez galdetu diegu solaskideei: bikaintasuna ipar, ikastetxe batzuetako zorroztasuna ez al da onenentzako lekua, denontzako lekua izan ordez? Tere Maldonado Filosofia irakasleak honela kontatu zuen, *Berria*n: "Ikastetxe publikoen irakasle-taldeek ikasleen azken nota jartzean maneiatu behar duten egoera dilema moral borobila izaten da. Jakin badakite nota horrek batez besteko notarako zenbatuko duela, aukerak irekiko edo itxiko dizkiola ikasleari (bekak eskuratzeko edo goi-mailako ikasketak egiteko). Askotan, badakite ere ondoko itunpeko zentroak, zeinarekin ikasleak erakartzeko lehian dauden, notak puztera jotzen duela. Gauzak horrela, bidezkoa al da gure ikasleak nota zehatzago baina batzuetan baxuagoekin ateratzea institututik?".

Juan Karlos Lopez-Mugartza irakasleak erantzun digu behin baino gehiagotan entzun duela *zorroztasuna* hitza hezkuntza publikoari lotuta, "baina cu-

Datutan

Gutxieneko nota

14 izanik atera daitekeen notarik altuena, hauek dira Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan sartu ahal izateko gutxieneko notarik altuena eskatu duten graduak, 2022-2023 ikasturtean:

Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza (EHU) **13,200** (20 plaza)
Medikuntza (NUP) **12,977** (60 plaza)
Biokimika eta Biologia Molekularra (EHU) **12,956** (40 plaza)
Datuen Zientzia eta Bioteknologia Gradu Bikoitza (NUP) **12,907** (10 plaza)
Medikuntza gaztelaniaz / euskaraz (EHU) **12,853 / 12,698** (200 plaza / 130 plaza)
Enpresa eta Ekonomia Gradu Bikoitza ingelesez (EHU) **12,845** (20 plaza)
Bioteknologia (EHU) **12,554** (40 plaza)
Ikus-entzunezko Komunikazio eta Kazetaritza Gradu Bikoitza (EHU) **12,496** (15 plaza)
Datuen zientzia eta EAZ Gradu Bikoitza (NUP) **12,494** (10 plaza)

** Urtero, plaza kopuruaren eta demandaren arabera, baita gradu jakin batean ikasi nahi duten ikasleek atera dituzten noten arabera, gutxieneko nota aldatu egiten da.*

Publiko-pribatu proportzioa

Hego Euskal Herrian, ikasleen **%35,7** joan zen unibertsitate pribatura 2020-2021 ikasturtean, eta %64,3 publikora.

EAEn, 2010 inguruan 10 ikasletik 2 joaten ziren unibertsitate pribatura, gaur egun 10 ikasletik 3, eta **pribaturako joera gorantz ari da**.

Nafarroan, ikasleen **%55** doa unibertsitate pribatura eta %45 publikora.

Azken hamar urteotan **%21** hazi da masterren eskaintza unibertsitate pribatuetan.

Ikasle kopurua

2022-2023 ikasturtean Hego Euskal Herriko unibertsitateetan matrikulatu diren ikasle berriak (ez unibertsitatean ikasten ari diren ikasle guztiak):

17.443 ikasle
EHU: 8.316
NUP: 2.100
Nafarroako Unibertsitatea (Nafarroan/Gipuzkoan): 2.470/280
Deustu: 2.467
Mondragon Unibertsitatea: 1.700
Euneiz: 110

Zenbait prezio

EHU/NUP
Graduen ikasturteko matrikula: **1.000-1.500 €**

MASTERRAK:
Ingeniaritza Industrial eta Enpresa Zuzendaritzan Master Bikoitza (NUP) **3.611 €**
Nekazaritzako Ingeniaritza (NUP) **2.551 €**
Nutrizio osasuna (EHU) **2.200 €**
Ekonomia sozial eta solidarioa (EHU) **1.800 €**
Osasun Publikoa (NUP) **1.701 €**
Enpresa kudeaketa (EHU) **300 €**

DEUSTU

GRADUAK, IKASTURTEKO:
Medikuntza **16.200 €**
EAZ eta Zuzenbidea **11.448 €**
Euskal Hizkuntza eta Kultura **6.360 €**

MASTERRAK:
EMBA - Executive MBA **41.500 €**
Osasun Psikologia Orokorra eta Psikoterapia Sistemiko eta Erlazionala **16.140 €**
Nazioarteko Ekintza Humanitarioko NOHA **12.000 €**

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUAK, IKASTURTEKO:
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza **9.010 €**
Ikus-entzunezko komunikazioa **6.000 €**
Haur Hezkuntza **5.820 €**

MASTERRAK:
Industria Ingeniaritza **19.872 €**
Gastronomia Zientziak **12.875 €**
Ekintzailetza eta Berrikuntza Irekia **9.280 €**

NAFARROAKO UNIBERTSITATEA (OPUS)

GRADUAK, IKASTURTEKO:
Medikuntza **18.300 €**
Ingeniaritza Elektrikoa (Gipuzkoako campusean) **14.500 €**
Kazetaritza **12.600 €**

MASTERRAK:
Abokatutza eta Prokuradoretzara Sartzeko eta Zuzenbide Digitalean master bikoitza **34.901 €**
Moda Gestioa **27.000 €**
Arkitektura eta Jasangarritasunean master bikoitza **21.000 €**

EUNEIZ
Inprimaki bidez eskatu behar zaizkio gradu eta masterren prezioak. Gainerako informazioa webgunean dute.

Iturriak: EHU, NUP, NU, Mondragon, Deustu, Euneiz, "Hego Euskal Herriko eliteak. Boterearen azterketa".

rriculumak ezartzen dituen irizpideak jarraitzen ditugu, curriculuma bera baita zorrotza eta presioa jaistea zaila da"; behin hori esanda, "egia da jende asko geratzen dela bidean, beraz, malguagoak izan beharko genukeela? Curriculuma aztertu beharko litzateke, ea nola aplikatu behar den, bidezkoa den, arrakala areagotzen duen…". Ez dira gutxi, curriculuma eta eman beharreko materia arindu beharko liratekeela aldarrikatu izan duten irakasleak.

LANBIDE HEZIKETA, PORROTA?

"Hezkuntza baldin bada etorkizuneko lan-indarra hezteko eta sortzeko instituzioa, kapitalaren behar produktiboen arabera eraldatuko da. Etorkizuneko langilea lan sinplifikatuetara ohitu beharrak ikasleok jasotzen dugun heziketaren sinplifikazioa ekarri duela begi-bistakoa da, laneko konpetentziak inposatzen dizkigute hasiera-hasieratik: DBHn bertan bideratzen da Lanbide Heziketara, nota filtro gisa erabiliz; badirudi Lanbide Heziketa dela hezkuntza sistemaren baldintzetara egokitzen ez denari eskaintzen zaion alternatiba –kritikatu du Berezibarrek–. Heziketa formakuntzan oinarritu beharrean, eskulan merkea sortzera zuzentzen da". Arrietaren iritziz, "Lanbide Heziketara joatea markatzen zaigu porrot moduan, unibertsitatera joatea da arrakastaren bidea". "Unibertsitatea sakralizatu da eta estatus jakin baten bila dator jende oldea –dio Jaione Apalategi irakasleak–. Bien bitartean, alde batera utzi da Lanbide Heziketa, eta Lanbide Heziketa da ondo prestatzen eta formatzen duen heziketa, bat egin dezakeena pertsona batzuen gaitasun eta premiekin, eta unibertsitate batek bezain zoriontsu egin zaitzakeena". Ildo berean mintzatu zaigu Lopez-Mugartza: "Nola prestigiatuko dugu Lanbide Heziketa, erabiltzen bada nota onak ateratzen ez dituena desbideratzeko, kanporatzeko?".

Beste ateetako bat unibertsitatea da, baina Bolonia plana inflexio puntua izan zen: graduen luzera murriztu zuen arren, praktikan graduek ez dute fitsik balio, masterra egin behar izaten da ondoren, eta horien kostua handia da (pribatuan zer esanik ez, badira 36.000 euro balio duten masterrak Nafarroako Unibertsitate pribatuan). Unibertsitate urteak luzatu eta garestitu egin dira, eta horrek jende ugari uzten du kanpoan. Matrikulaz gain (1.000 euro pasatxo ikasturtero, graduko matrikulak), bestelako gastuei egin behar zaie aurre: fotokopiak, liburuak, hainbatetan pisu baten alokairua edo bestela joan-etorriko gastuak, zenbait ikasketetan materiala… "Suspentsoak egonez gero, garestiago ateratzen zaizu bigarren matrikula, berriz gainditzen ez baduzu hirukoiztu egiten da prezioa… eta niri ikasleak negarrez etorri zaizkit, gainditu gabeko ikasgai hori ezin ordaindu –kontatu digu Lopez-Mugartzak–. Pribatuarekin konparatuta gutxi da ordaindu behar dena, eta hala ere, jende asko da ezin duena ordaindu eta gure unibertsitateko gizarte zerbitzu sailera doana. Nik dekano-orde bezala denetarik ikusi dut Nafarroako Unibertsitate Publikoan, tristea da egoera, baina guk inor ez dugu etxera diru kontuengatik bidali".

Mediku nahikorik ez badago, zergatik ez da unibertsitatean plaza gehiago eskaintzen? "Osakidetzaren barruko egoera bermatuta dagoelako osasungintza pribatuaren alde"

Beka sistemaz galdetuta, adabakiak direla, gastuei aurre egiteko ez direla nahikoa eta baldintza asko dituztela diote elkarrizketatuek. "Babes sistema konpentsatzailea dugu, desoreka sozialak eragiten ditugu eta gero sortzen ditugu babesteko sistemak, baina horrek ez du gainditzen dagoen arazoa, unibertsitatearen aurreko hezkuntza mailetan hainbatek bizi duen egoerari eta behar duen arretari, adibidez, ez diote erantzuten bekek. Eta beken kopuruak eta baldintzak hobetu egin dituzte, baina aldi berean jendeak gero eta behar ekonomiko handiagoak ditu", azaldu digu Jon Diazek. Danimarkan eta Suedian, unibertsitatera joateko gurasoen etxetik urrun doazen ikasleei administrazioak etxeko alokairua eta beste ordaintzen diela kontatu digu Jaione Apalategik, eta lanpostua aurkitzen dutenean horren portzentaje bat itzultzen dutela.

PLAZA PUBLIKO NAHIKOA?

Diruak bakarrik ez, notak ere baldintzatzen du unibertsitate publikoan sartu eta norberak nahi dituen ikasketak egin ahal izatea. Unibertsitatera sartzeko probek zeresan handia dute horretan, eta Batxilergoko lana hiru egunetan ebaluatuko diete ikasleei, horrek askorengan eragiten duen presio eta ezinegonarekin. Notak zer islatzen duen eta zer ez, kalifikazio baten atzean zer ezkutatzen den aipatu dugu dagoeneko, baina filtro nagusietakoa izaten jarraitzen du, eta ikasketa batzuetan eskatzen den nota oso altua da. Medikuntza da, ziurrenik, kasurik paradigmatikoenetakoa: izugarri altua da eskatzen den nota, 14tik 13ren bueltakoa. EHUn, esaterako, 368 plaza baino ez dira eskaintzen Medikuntza graduan, nahiz eta azken hamar urteotan urtero 2.000tik gora ikaslek Medikuntza ikasi nahi izan duten. Aldi berean, Osasun sailburuari behin eta berriz entzun diogu ez dagoela nahikoa medikurik. Zergatik ez da, orduan, atea gehiago zabaltzen eta plaza gehiago eskaintzen? "Osakidetzaren barruko egoera bermatuta dagoelako osasungintza pribatuaren alde; Quironek alfonbra gorria du gurean –erantzun digu Jon Diazek–. Larritasun egoerara eraman dute publikoa eta pribatuari eskaintza luzatu diote".

Oro har, nahikoa plaza dago unibertsitate publikoan? Diazen arabera ez, publikoaren eskaintza egiterakoan kontuan hartzen delako ikasleen proportzio bat pribatura joango dela; "plaza eskaintza orokorra egiteko pribatuak ere kontuan hartzen ditu Eusko Jaurlaritzak, beti ere pribatuaren interesen mesedetan".

PUBLIKOA, PRIBATUA ETA ARRAKASTARAKO GILTZA

EAEn, 2010 inguruan hamar ikasletik bi joaten ziren unibertsitate pribatura, eta gaur egun hamarretik hiru, "eta pribatuaren aldeko joera gorantz doa", azaldu digu Diazek: "Unibertsitate publikoaren zenbakiak berdin mantentzen dira eta pribatuarenak %5 igo dira urtero, azken hiruzpalau urteetan". Nafarroan, "pribatua beti egon da goitik", esan digu: ikasleen %55 pribatura doa eta %45 publikora; "OPUSek indar handia du". Demografia, pandemia eta ekonomia krisiek gehiago eragin diote unibertsitate publikoaren ikasle kopuruari, pribatuari baino: "Ikusten da krisiak gehiago eragiten diela langile klaseko familiei, eta etxe berean seme-alaba bat baino gehiago baldin baduzu, biak unibertsitatera joatea ezinezko da hainbatentzat".

JUANAN RUIZ / FOKU

Irudian, ikasleak EHU aurrean. "Plaza eskaintza orokorra egiteko pribatuak ere kontuan hartzen ditu Jaurlaritzak, pribatuaren mesedetan", dio Jon Diazek.

*Hego Euskal Herriko eliteak. Botereare*n *azterketa* liburuan (2021), maila goreneko postuetan lanean ari direnek aurrez unibertsitate publikoan ala pribatuan ikasi duten ikertu zuen Diazek zuzendutako EHUko talde batek: "Zenbakiek diote batez beste pareko direla publikoan eta pribatuan ikasi duten goikarguak, baina kontua da unibertsitate pribatura joateko aukera duen populazioa hamarretik bi-hiru dela, beraz bihiru horiek lortzen dute bosten tokia. Ondorioa da maila batean unibertsitate publikoa badela aipaturiko igogailu sozial horretan lanpostu on bat lortzeko bidea, baina ez botereguneetara eta elitera iristeko bidea".

ZERGATIK DOA JENDEA PRIBATURA?

Elite horretara ailegatu nahi izatea, lanpostu bat lortzeko enpresa pribatuekin unibertsitate pribatuek duten harreman sarea baliatzea edota publikoan sartzeko aukerarik izan ez eta pribatura jotzea –horretarako diru eta baliabideak dituenak, jakina– izan daitezke unibertsitate pribatua hautatzeko arrazoiak, baina sakonean gizartean errotuta dagoen sinesmen bati ere erantzuten dio sarri: "Ordaintzen baduzu, hezkuntza kalitatezkoagoa ordaintzen ari zarela, diskurtso hori hedatu da eta intuitiboki hala dugu barneratuta; pribatua izate hutsagatik izen ona eta prestigioa bermatua du, eta

"Dirua dutenak beren ghettoetan elkartzen dira, eta ghetto horretan sartzen bazara dirudun horien abantailez gozatuko duzu, ideia horren atzetik zoaz unibertsitate pribatura"

Juan Karlos Lopez-Mugartza

pena da, batzuek nahiago dutelako 7.000 euro ordaindu ez-dakit-nongo unibertsitatean online ikasteko, aurrez aurreko ikasketak unibertsitatean jaso ordez –uste du Lopez-Mugartzak–. Gurpil bat ere bada: dirua dutenak beren ghettoetan elkartzen dira, eta ghetto horretan sartzen bazara dirudun horien abantailez gozatuko duzu, horren bila zoaz".

MASTERREN NEGOZIO ITZELA

Errealitatea da Europan gero eta unibertsitate pribatu gehiago dagoela; gurean azkena, Euneiz Gasteizko unibertsitate pribatua. Unibertsitateen interesa masterretan dagoela nabarmendu du Jon Diaz irakasleak, negozioa eta dirua hor mugitzen baita; azken hamar urteotan %21 hazi da master pribatuen eskaintza Espainiako Estatuan. "Horri gehitu behar zaio master batzuk zuzenean enpresa pribatuek eskaintzen dituztela unibertsitatean: Kazetaritzan *El Correo* masterra esaterako beteta dago; datuek erakusten dute hedabideek gero eta langile gutxiago dutela, baina hala ere esperantza hori saltzen du masterrak, eta *El Correo*n lan egin nahi duenak badaki horretarako master hori egin behar duela". Inbertsio funtsek unibertsitateetan duten presentziaz ere ohartarazi du Diazek: "Milioika euro daude jokoan, sekulako negozioa dira unibertsitate pribatuak, eta orain Euneizekin zer gertatuko den ikusi beharko da".

Logika pribatua unibertsitate publikoan sartuta dagoela ere azpimarratu dute solaskideek: enpresen interbentzio zuzena eta zeharkakoa ikasketetan, unibertsitateak darabilen teknologia eta azpiegituretan, masterretan, enpresetan egiten diren praktikaldietan –eta zein baldintzatan egiten diren–, ikasketa batzuen indartzean eta beste batzuen debaluazioan…

Bestelako hezkuntza eredu bat aldarrikatu dute elkarrizketatuek, erreportajean aipaturiko gaitzetatik urruntzeko. Gauza batean ados daude: badago zer hobetu, benetan hezkuntza izan dadin gizarteko arrakalen orekatzaile eta ez gizartearen ajeak gutxi-gehiago erreproduzitzen dituen sistema. ●

ANITA LOPEPE
BAGIRA PROZESUKO KIDEA

“Inkestak balioko digu zertan garen ondorioztatzeko eta ondoko geltokia non jartzen dugun erabakitzeko”

Iraganetik elikatuta eta gaurko testuinguruan kokatuta, geroari begira jartzeko ariketa kolektiboa izan nahi du Bagira prozesuak. 1963an Itsasun egin zen Ipar Euskal Herriko lehen Aberri Egunaren 60 urteak direla eta, mugimendu abertzalearen epe ertain luzerako bide-orria adostea dute helburu. Prozesu horren antolatzaileen artean den Anita Lopeperekin bildu gara, nondik-norakoak jakiteko asmoz: “‘Abertzale’ nozioa bezain inportantea zaigu ‘mugimendu’ hitza. Horrekin ulertzen duguna da azken hamarkadetan Euskal Herri burujabe, solidario, feminista, euskaldun eta justizia sozialean oinarriturikoaren eraikuntzan parte hartu duten norbanakoz eta egiturez ari garela”.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN BAGIRA

Bagira prozesua aitzina doa eta bigarren fasean sarturik zarete: diagnostikoan. Oroitaraziko diguzu zer den Bagira?

Gogoeta prozesu bat da. Mugimendu abertzalearen oinarri zabalean gogoeta bat antolatzea du xede, ondoko urteetarako bide-orri partekatua osatzeko. Joan den abenduan publiko egin genuen eta 2024ko Aberri Eguna bitartean fase desberdinak ditu prozesuak: aurtengo Aberri Eguna arte transmisio historikoa burutu dugu, aitzineko urteetan eta hamarkadetan abertzaleek aitzinarazi dituzten borrokak, osatu dituzten proiektuak gogoratzeko eta aldi berean garai horiek ezagutu ez dituztenei horien berri emateko. Egin den bidetik ikasgai zenbait atera nahi izan ditugu. Fase hori finitu da Aberri Egunarekin, sinbolikoki markatu nahi izan dugu data hori, duela 60 urte leku berean, Itsasun, pausatu zirelako Ipar Euskal Herriko abertzaletasunaren oinarriak. Orain, zertan garen aztertzeko xedez ireki dugu bigarren fasea, diagnostikoa deiturikoa. Ondotik, bideorri partekatu bat adostuko dugu.

60 urtetako ibilbide horri so egin eta zer dugu azpimarragarri?

Hastapenetik argi genuen ez gindoazela kontakizun bakar baten adostera eta ondorio amankomun batzuk ateratzera. Ez genuen hori helburu, eta pertsonalki pentsatzen dut ez dela posible. Argitara ezarri nahi genuen mugimendu gisa eraman diren borrokek ekarritakoa. Erran daitekeena da biziki oparoa izan dela mugimendu abertzalearen ekarpena. Anitza ere izan da, sektore eta gai anitzetan gauzatu dira proiektu egituratzaileak eta izugarri konkretuak, baita abertzale ez diren batzuekin elkarlanean ere. Hori dugu, ene ustez, ondorio argiena. Baina, transmisio historikoak agerian uzten digu zenbat gelditzen zaigun egiteko. Hitza hartu duten lekuko guziek dute hori agerian utzi: ez da triunfalismorik, egin da bidea, baina bada oraindik egiteko. Horrez gain, argi gelditzen da gauzak aldatu direla. Testuinguru globala aldatu da, eta Euskal Herrian ere gauzak aldatu dira, batzuk onerako besteak txarrerako.

Duela 60 urte antolatu zuten Ipar Euskal Herriko lehen Aberri Eguna, Itsasun. Urtemuga azpimarratu nahian, herri berean ospatu dute aurten. Argazkian, Aberri Eguneko manifestazioa.

Autokritikatik, errepikatu nahi ez diren osagai batzuk atera direa diagnostikoaren fasetik?
Argiki, ez dugu beti asmatu eta ez gira beti fin ibili. Zatiketak izan dira eta zatiketek ahuldu dute mugimendua batzuetan, eta beharbada beste batzuetan gauza batzuk argitzeko balio izan dute. Testuingurua aldatu bada, deus ezin da errepikatu egina izan den bezala.

Bigarren fase honetarako, 40 galdera dituen inkesta osatu duzue.
Inkestarekin diagnostiko aski estatistikoa eta kuantitatiboa dugu, eta eginahala pertsonen iritziak bildu nahi ditugu. Horrek emanen digu tenperatura: zein pertzepzio den egindako bideaz, mugimendu abertzaleari buruz, aitzina begirako erronkez... Balio handiko oinarria izanen da hori guretzat, gero diagnostiko kualitatiboa osatzeko. Ondotik, problematika zehatz batzuk argitzeko xedez bideratuko ditugu beste forma batzutako momentuak –saio tematikoak, gai transbertsal batzuei buruzko perfil askotariko jendeen gurutzaketa, eta beste–. Horregatik dugu ahal bezainbat abertzaleren iritzia bildu nahi, eginahala partehartzailea izatea nahi dugu. Bide-orri bat adostera goazenez, oinarria izan dadila horretara dedikatuak diren egiturek egin dezaketena baino zabalagoa. Altxor bat izanen da datu bilketa hori. Baina, ariketa bera dugu helburuen artean: ehunka abertzale gogoetan ezartzea, oren batez osatu ditugun 40 galderen inguruan hausnarraraztea. Guretzat anitz da hori, gogoeta prozesuaren mamia dugu hori bera.

EH Bai alderdia hor da, urtez urte indarra irabaziz doana. Inkesta horretatik aterako dena bere egin eta kontuan hartuko du, baita aldaketa batzuk galdatzen bazaizkio ere?
Dinamika hori abiatzerakoan hastapena eta bukaera ezarri genizkion, Bagira ez delako mugimendu bat, baina bai prozesu bat. 2024rako hainbat norbanako eta egitura ezarri nahi ditugu gogoetan, bide-orri partekatu bat osatzeko xedez. Helburu orokorrak elkarrekin adostu ditzagun. Behin lan hori bukaturik, erran nezake bide-orriaren gauzapena ez dela Bagiraren esku. Hau da gure apostua: prozesu partehartzailea lortzen badugu zinez, bide-orriaren osaketan parte hartu duten egiturek, eragileek eta norbanakoek bere eginen dutela eta erreferentziazkoa bilakatuko dela nork bere ildoak finkatzeko momentuan.

Anita Lopepe, elkarrizketatua.

EHESK

“Transmisioaren fasean ondokoa agerian utzi dute guziek: ez da triunfalismorik, egin da bide, baina bada oraindik egiteko”

Hanka bat hauteskundeetan, bestea aktibismoan. Bien arteko oreka ez galtzea izan daiteke mugimendu abertzalearen erronketariko bat. Agian ondoko oharra aterako da inkestatik: “Kasu, ez galdu hanka aktibista”...
Ondoko irakurketa partekatzen genuen iniziatiba abiatzerakoan: mugimendu abertzalea hazi da, giro orokorra ere anitz aldatu da eta horrek galdera berriak sortzen ditu. Eguneratzeko beharra dakar horrek eta beharbada mugimendu izaera indartu beharrean gara. Zer ulertzen dugu “mugimendu” nozioarekin? Inkestako galderetariko bat dugu “zer da mugimendu abertzalea?”. Mugimendu hitzaren gibelean konbergentzia bat bada, eta iduritzen zaigu abertzaleek kontzientekilan egin behar dugula helburu amankomun batzuen alde. 60 urtez bide egin bada horri esker ere bada, hainbat egitura eta norbanako aritu direlako helburu eta proiektu amankomun batzuei begira. Herri hau eraiki behar dugu, eta izaera jakin batekin eraiki behar dugu: sozialki justua, ingurumenarekiko errespetuan, herri euskalduna, feminista, solidarioa... Iduritzen zaigu mugimendu izaera horrek berritzeko eta berrindartzeko beharra duela. Horretara dator bide-orria, ondoko etapak eta bidea elkarrekin adosteko. Bere eginen dute egiturek, norbanakoek eta hautetsiek? Nahi dugu pentsatu baietz. Baina hori ez da gehiago Bagiraren esku izanen, Bagira ez delako inondik ere eragileen arteko koordinazio bat.

Mugimendu abertzalea diozuenean, EAJ edo Ipar Buru Batzarrak badu bere lekua hor?
Prozesua abiatzerakoan Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalearen jardunaldiak antolatzea genuen xede. “Abertzale” nozioa bezain inportantea zaigu “mugimendu” hitza. Horrekin ulertzen duguna da azken hamarkadetan Euskal Herri burujabe, solidario, feminista, euskaldun eta justizia sozialean oinarrituriokoaren eraikuntzan parte hartu duten

"Izan ginen, bagira, izanen gira" adierazpena irakurri dute aurtengo Aberri Egunean, duela 60 urte abertzale multzoa elkartu zen leku berean.

norbanakoz eta egiturez ari garela. EAJ ez da Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalearen historiaren osagai bat izan. Pentsatzen dugu, gainera, diferentziak badirela jendarte proiektuaz eta proiektu politikoa ezaugarritzerakoan.

Lurralde erakargarria da Ipar Euskal Herria eta 22.000 biztanle gehiago izanen ditugu hemendik 20 urtera, gehienak "Frantziako eskualde goxo batera" etorritakoak. Hori ere izanen da gerora begira erronka potoloa.
Nik badut nire iritzi pertsonala, zuk zurea duzun gisara, baina Bagira prozesu bat da, horri buruzko gogoetarik ez du. Haatik, bistan da, inkestaren gibelean bada arrangura hori. Egoera aldatu dela diogularik, aldagai hori ere dugu kontuan hartzen. Gerorako erronketan lehentasunak zein

"Ariketa bera dugu helburu: ehunka abertzale gogoetan ezartzea, oren batez, 40 galderen inguruan. Guretzat anitz da hori"

diren, problematika horri buruz abertzale mugimenduak dituen indargune edo ahulguneak zein diren... horra galderen bidez jakin nahi duguna. Mugimendu abertzaleaz berriki interesatu direnen iritziak nahi ditugu, beraiek ere lekua dutela sentitu dezaten. Kanpotiar batentzat ez da baitezpada erraza bere lekua atzematea, nahiz eta azken urteetako hainbat bilakaerek –hauteskundeetako emaitzek, ikastoletako gurasoen perfilak, eta beste– erakusten diguten gure proiektua inklusiboa dela. Diozun bezala, erronka bat da bilakaera demografikoarena mugimendu abertzalearentzat eta buru egin beharko zaio modu transbertsalean –hizkuntza, lurra, etxebizitza, kultura eta beste–.

Euskararen auzia ere hor dugu. Apalduz doa erabilpena, azken inkesta soziolinguistikoaren arabera %7,1 gara euskara frantsesa bezainbat edo gehiago erabiltzen dugunok –2003an %10 ginen). Orain artekoari begiratu eta zer erran daiteke mugimendu abertzaleak hizkuntzari begira izandako harremanaz eta lanaz?

Ipar Euskal Herriko 40 bat eragilerekin bildu ginen gogoeta prozesuaren berri emateko. Tartean baziren euskalgintzako eragileak, batzuk ezagunak, saihestezinak, beste batzuk elkarte ttipiagokoak. Argi gelditu zen abertzale gisa badugula zer gogoetatu euskarari buruz, egindakoari begiratu behar diogu eta jokoan dena identifikatzeko. Euskalgintzaren alorrean aktualitateak behartzen gaitu aldian aldiko erantzunetara, sustut ikusirik lorpenak zalantzan jarriak edo kaltetuak izan daitezkeela. Frantziako Estatuak eramaten gaitu erresistentzia jarrerara, dugun ttipi hori defenditzera. Ondoko oharra jaso genuen elkarte ttipietatik: hori defenditzen ari giren bitartean, agian erronka nagusia –euskararen biziraupena– ez dugu sakontasun osoan aztertzen. Beste hainbat gairen gisara, euskararen xantierrari ere molde eraginkorrean erantzuten ahalko zaio gure iritziak eta gure indarrak partekatuta. Diagnostikoaren faseari dagokionez, ene ustez ez dut arrisku handirik hartzen erraten badut euskara izanen dela tratamendu espezifikoa beharko duen gai bat. Gure xedea litzateke euskalgintzan ari diren eragile edo norbanakoak biltzea, ikuspegi desberdinak gurutzatzea, egunerokoak behartzen gaituen zurrunbilo horretatik atera eta begiak zerumugan jartzea. XXI. mendean ere herri hau euskalduna izateko etapak eta osagaiak zein diren gogoetatu nahi genuke. Ene iduriko, euskararen arloak zinez justifikatzen du Bagira prozesuaren funtsa: euskararen arloan anitz gauza egiten da, han edo hemen, baina ikuspegi globala finkatu eta antolatu beharra dugu.

Euskal Herri burujabea aipatu duzu. Independentziaz ari gara?

Inkestako galderetariko bat da bete-betean. Horri buruz nahi dugu galdezkatu eta hor ere bakoitzak du bere erantzuna. Nahi dugu galdera horri ehunka abertzalek erantzutea. Zein dira XXI. mendeko oinarrizko kontzeptuak –nazio izaera, euskara, burujabetza politikoa, burujabetza, sozialismoa...–. Jakin behar dugu non kokatzen den kurtsorea. Uste dugu galdera pausatzea ez dela sakrilegio bat; alderantziz, galdera egin behar dela, eta ikusi. Horretarako ahal bezainbat erantzun bildu behar dugu, oinarri horiek bizirik segitzen ote duten neurtzeko, eta ikusteko berri batzuk gehitu behar ote zaizkion. Kasu, ez da bozketa bat, gogoeta prozesu bat da, tenperatura hartzeko balioko digu, zertan garen ondorioztatzeko eta ondoko geltokia non jartzen dugun erabakitzeko.

Inkestari ahal bezainbat abertzalek erantzutea nahi dute. www.bagira.eus gunean jarri dute inkestarako lotura.

> **"Mugimendu abertzaleari berriki interesatu direnen iritziak nahi ditugu, beraiek ere lekua dutela sentitu dezaten"**

Aztiker ikergunearekin eramandako inkesta da. 23.000 bozkazale inguru ditu EH Bai-k, beraz gutiago ala gehiago, 23.000 abertzale. Fidagarritasuna bermatzeko zenbat erantzun jaso behar dituzue?

Errepresentatiboa izateko mila pertsonako lagin bat ongi dela diote Aztikerrekoek. Errepresentatiboa nahi denez, kopuru kritiko bat ukateaz gain, hainbat osagai bermatu behar ditugu (gizon/emazte proportzioa, lurraldetasuna, borroka sektoreen aniztasuna...). Galdera batzuk balio dute erantzuleen profila osatzeko, beraz, Aztikerren laguntza teknikoari esker, desoreka batzuk ikusten baditugu gure gain izanen da jendeen aktibatzea, balio estatistikoa bermatzeko. Baina guk erantzun gehiago nahi dugu, Bagirak prozesu parte-hartzailea izan nahi duelako. ●



Irudiak erakusten du elikadura katearen maila bakoitzean zenbat enpresek merkatuaren ze zati eskuratua duten. Infografia: ETC Group. 2022. Food Barons 2022. Iturria: IPESen *Who´s tipping the scales* txostena.

PREST GAUDE HERRIAREN ELIKADURA MERKATUAREN ATZAPARRETAN UZTEKO?

ASUNEK
AINTZIRA OÑEDERRA
GOIURI ALBERDI

Agroekologiarekin zerikusia duten ebidentzia zientifikoak oinarrizkoak dira elikadura sistemen inguruko politika publikoak diseinatzerako orduan. Egun, ordea, agro-industriari lotutako korporazio pribatu handiek finantzatzen dituzte ikerketa zientifikoak eta bereganatu gobernantza espazioak.

Hauxe dugu ASUNEK-ko kideek ARGIAko Bizi-Baratzearekin egiten dugun lehenengo kolaborazioa. Elikadura sistema agroekologikoen bidean, ikerketatik sortzen diren jakintzak lurreratu eta elikadura burujabetza egunerokoan indartzen duten eragileen praktikekin osatzeko saiakera ekarriko dugu.

Zientziaren neutraltasuna paradoxa hutsa den honetan, egungo krisi ekosozialari agroekologiatik aurre egiteko ebidentzia zientifikoak bilatzen ditugu, bidezko politika publikoei eta tokiko laborantza indartzeko araudiei heltzeko. Hortaz, ez gaitezen ahaztu korporazio pribatuek eragindako eta finantziatutako zientziaren eskutik diseinatzen direla gaur egungo politika publikoak. Esaterako, elikagai transgenikoak mundu mailako gosearekin amaitzeko ezinbestekoak dira, energia berriztagarriek energia fosilen kontsumoa ordezkatuko dute eta sistema kapitalistaren motorra luzaroan elikatzea bermatuko dute, aldaketa klimatikoaren egokitzapenean nekazaritzaren teknifikazioak eta digitalizazioak salbatuko gaitu, eta abar luze bat. Beno, agian argitu beharra dugu: komunikabideak ere aliatu interesgarriak dira ebidentzia zientifikoak lau haizetara zabaldu eta ezartzeko orduan.

Zentzu horretan, agro-industria "lobby" paregabea da, mundu mailan eta gurean ere, noski! Horretaz aritu da IPES Food erakundea azken txostenean, pasa den otsailean argitaraturiko *Who´s tipping the scales* ("Nor ari da balantza makurtzen") lanean. Hain zuzen ere, elikadura enpresa korporatiboek duten eragiteko gaitasunaz, mundu mailako nekazaritza elikagaien gobernantza prozesuetan.

Egoera horri buelta emateko hiru printzipio azaltzen dizkigu txostenak, elikadura-gobernantzaren botere-egiturak eraldatzeko gako gisa. Lehena, korporazioek elikagaien gobernantzaren gain duten eraginari heltzea, enpresen merkatu-boterea murrizteko neurriak hartzea. Bigarrena, interes publikoari erantzun ahal izateko, gobernantza demokratizatzea eta giza eskubideetan oinarritutako partaidetza-mekanismoak garatzea. Hirugarrena, prozesu autonomoak sortzea, tokiko herri-mugimenduetako ahots, aldarrikapen eta proposamenentzako espazioak.

Botere-egitura aldaketa horrek paradigma aldaketa bortitz bat dakar, elikadura interes merkantilisten baitan kudeatua izatetik, interes publikoari erantzungo dion baliabide bilakatzen delako. Eta panorama berri honetan, interes publikoak ba al daki zintzoki zer nolako elikadura sistema berreskuratu (edo birjabetu) behar duen guztion bizi kalitatea bermatzeko? ●

egonarria
Lurrari entzuten dion saioa

Gai nagusia: **Esnea**
Esperientzia: **Irure txikiko ogia**

Bizkaigane proiektuko kidea den Xabier Sabalzak azalduko du esnearen sektorea zertan den. Esperientzien atalean, Irure Txiki baserriko Edurne Agirrek okintzan egiten duten lana azalduko du.

ENERITZ ARZALLUS

argia.eus bizibaratzea.eus

OINLODIA EDO PEONIA ETXERAKO ETA LEPORAKO

JAKOBA ERREKONDO CC-BY-SA

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Deabrua uxatzen du; Bizantzio bazeneko garaietatik dator oinlodiaren edo peoniaren (*Paeonia officinalis*) fama. Bakoitzak gure deabruak ditugunez, etxero beharko luke oinlodi bat behinik. Nik hiru ditut, zein baino zein ederragoa. Oraintxe daude loraldi betean; lore handi deigarriak zabaltzen dituzte, ederki ikusteko modukoak, baita urrundik usaintzekoak ere. Urte sasoi honetan gehien gustatzen zaizkidan loreak dira: haien koloreak, formak eta usaina. Zenbaiti kiratsa iruditzen zaio, baina makina bat lurrin egin da bere loreena antzeratu asmoz, idunak harrotzeko. Izan ere, usain kontutan peoniaren lorea isilkorra da, estaria du lurruna. Ezin da, gaur arte behinik, loretik lurrina erauzi. Oinlodiaren loreen lurrina lortzea etengabeko jarraibidea izan da aspaldiko lurringileen agendan. Itzalgaizka dabiltza, denak, beren formulak bakoitzak eta berdingabeak direlako ustetan.

Lorearen petaloak tindagai bezala erabili izan dira herenegunago arte; ez ziren merkeak izango petalo horiek emandako kolorea zuten marmeladak eta likoreak.

Sendalebar handia da. Izena ere hortik omen datorkio: Paeonia. Agi danean, Paeos mediku mitologikotik dator, zeinek landare horrekin Troiako gerrateko zaurietatik sendatu zituen Pluton eta beste jainkoak. Hostoak, loreak baina batez ere sustraiak dira sendagai. Sustrai lodikoteak ditu, janari erreserba handiak; hortik etorriko zaio, noski, "oinlodi" izena. Sustrai horien sakadari esker indarrean berritzen da udaberriero. Bada sineskeria bat jainkoen artetik datorrela eta ilargiaren emanaren ondorioz berritzen dela; gauez distira egiten duela diote, eta horrela uztak, abereak eta artzainak babesten dituela. Sustrai horiek lagunak ez dizkio kendu behar peoniari; estaltzen duen lurra kendu, lokarri bat sendo lotu eta txakurrari tiraraziz kentzea zen ohitura. Horretan ere ondo gurea, gizatiarra, gizontiarra den erantzukizunak saihesteko joera, eta txakurra errudundu!

Sustraien xerrak eta haziak hari batean sartu eta lepoko edo iduneko gisa janzten zuten epilepsiadunek, gaixotasunari aurre egiteko. Haurrek ere bazeramaten, hortzaldia suspertu eta mina arintzeko. Geurean agurtzak egiteko agurtza-aleak: uztail amaiera aldera biltzen ziren hazi biribil gogor gorri-beltzak. Txinan estatuaren lorea da eta emakumeen osasunerako landare egokienetakotzat jotzen dute: hilekoaren mina eta nahasteak, muskulu-karranpak, migraina arintzeko eta abarretarako erabiltzen da medikuntza tradizionalean. Aragoiko erreinu zaharraren ikurra ere bada; haiek ere zerbait jakingo zuten.

Beste uste oso ezagun bat ere bada: oinlodiak lorea irekitzeko inurriek bisitatu behar dute bere lore-begia edo pipila. Mito bat. Era guztietako intsektuak hurbiltzen dira lore-botoira, azpiko aldeko sepaloetan jariatzen duen nektarra biltzera, lipido, aminoazido eta eta beste osagai organikoetan aberatsa dena. Oinlodia etxe aldamenean ez jartzeko dio baten batek, inurriak ez erakartzeko. Nik halaxe jarri nuen bada bat, etxe barrenean topatuko duten janaria baino oinlodiarena gustukoagoa izango duten itxaropenarekin.

"Astolilia" eta "tulipa" ere esaten omen zaio oinlodiari. Nire ustez nahasita. Edo? ●

ERROTA

HUR-OLIOA ETA BESTE HAINBAT PRODUKTU, SENPEREKO LURRETAN SORTUAK

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Vincent Trebessesek sortutako ekimena da Errota, Senperen hurrak ekoizten eta eraldatzen dituen proiektu berezia. 2008an jarri zuen martxan hur-olioa egiteko errota, hasiera hartan Ziburuko bere etxean. Hurrak kanpotik erosten zituen, baina pixkanaka proiektuan sakontzen joan zen, eta 2015ean, hurrak eraldatzetik ekoiztera ere pasatu zen. "Zenbait urtez lur bila aritu ondoren, Senperen erosi genuen lursail hau, eta momentu hartan pasatu nintzen laborari ere izatera", dio. Probak eginez eta esperimentatuz joan dira urteotan, eta hurra hamaika formatan eskaintzen dute egun: olioa, krema, hautsa, xaboia...

1.200 HURRONDO, HIRU HEKTAREATAN

Senperko hiru hektareako lursailean 1.200 hurrondo landatu zituzten 2015ean. "Ekoizpen ekologikoan ari gara, eta ez da oso ohikoa hori, hurren Balanin xomorroak uztaren %90 izorratu baitezake eta momentuz ez baita tratamendu ekologikorik ezagutzen", azaldu du. Landaketak egin dituen ingurua biodibertsitate handiko tokia izanik, hura ez kaltetzea zen ekoizlearen helburua, horregatik erabaki zuen biologikoan ekitea: "Balanin xomorroen aurka egiteko ere biodibertsitate hori maila gorenera eramaten saiatzen naiz, xomorroen harrapakariei fabore egiteko".

Errotan ez dira behar adina hur ekoiztera iritsi oraindik, eta elkarlanean ari da beste zenbait ekoizlerekin, nahiz eta horietako zenbaitek konbentzionalean ekoizten dituzten hurrak. Aurrera begira, Pirinio Atlantikoetako departamenduan hur ekoizpen sektorea indartzeko asmoz sareak sortzen ari da Trebesses.

HURBILEKO OSAGAIEKIN EGINAK

Hur-olioa da Errotako produktu nagusia, eta Senpereko olio-errotan egiten dute eraldaketa prozesu osoa. "Hurrak bildu, garbitu, lehortu, kalibratu eta makinekin txikitzen ditugu. Litro bat olio egiteko, adibidez, 25 kilo hur behar dugu". Oliba olioaren prozesu antzekoa darabilte, eraldaketan ez dute berorik erabiltzen, eta produktu fin eta suabea da emaitza. "Elikagaietan nahiz kosmetikoetan erabiltzeko aproposa da olio hau", gehitu du.

Bestelako produktuak ere topatuko ditugu Senpereko gunean nahiz interneteko dendan salgai. "Olioa, krema eta hautsa nik egiten ditut, baina beste zenbait produkturen kasuan, kosmetikoenean adibidez, nire balio berak dituen Baionako enpresa txiki batekin elkarlanean egiten ditut". Produktuotan darabiltzaten lehengaiak hurbilekoak izatea bilatzen dute: "Eztia Ziburuko eta Azkaineko erlezainena da, hur-hautsarekin prestatzen dugun kondimentu baterako darabilgun gatz-lorea ere Saliesetik ekartzen dugu...". Gunean eta lursailean bisitak antolatzen ditu Trebessesek, eta salmentaren zati handiena bertan, zuzenean egiten saiatzen da. Zenbait sukaldarirekin, gozogilerekin eta denda txikirekin ere lan egiten du. ●

SAREAK

BADALAB

Mugitzen ez denaren kateak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Euskal fedibertsoko topaketak egin dituzte maiatzaren 20an Orereta-tan. Euskal zer? Fedibertsoa, bai, ondo leitu duzu irakurle, sare sozial libre eta federatuak izendatzeko erabiltzen den hitza; federazio eta unibertsoaren batura. Fedebertsoa ere izan zitekeen, baina Euskal Herrian horretatik nahikoa badagoela eta nahasmena sor zezakeelakoan, hautatu dute -i-a -e-aren ordez. Total, ARGIA eta Iametza ere izan direla topaketetan eta kontatu didate nola joan zen eguna.

Modu sinplean azaldu didate kontua –kontzeptu abstraktu samarrak dira eta kosta egiten zait batzuetan irudikatzea, beraz, *grosso modo*–: ohiko sare sozialak ez dira libreak eta zentralizatuta daude. Adibidez, Twitter bat eta bakarra da, Elon Musk-ena; edo Youtube berdin, Google-rena izatea. Fedibertsoan proiektuak dira protagonista: badira Mastodon (mikroblogak), Peertube (bideoak), Pixefeld (argazkiak), Funkwhale (musika eta podcastak), Bookwyrm (liburuak) edo Lemmy (foroak), esate baterako. Eta horien barruan badira elkarren artean konektatutako euskarazko komunitate burujabe asko: mastodon.jalgi.eus eta mastodon.eus, peertube.euskarabildua.eus, bideoak.argia.eus eta peertube.eus., pixelfed.eus, baleafunk.eus, paperjale.eus edo lemmy.eus.

Euskal federazio digitalen unibertsoa geroz eta zabalagoa da eta elkar ezagutu, fedibertsoa ikusarazi eta etorkizun posibleetan pentsatzeko asmoz antolatu dituzte jardunaldiok.

ARGIAk bere esperientziaz hitz egiteko tartea izan du eta Asier Iturraldek eta Axier Lopezek ARGIA proiektua fedibertsoan nola murgildu den azaldu dute: zergatik egiten dugun talde gisa fedibertsoaren aldeko apustua eta bidean aurkitzen ditugun kontraesanak ere mahai gainean jarri dituzte.

Hiru data, hiru jauzi eta hiru kolpe azpimarratzen dira ARGIAren ibilbidean: 2018an Mastodon, 2020an baleafunk.eus –ARGIAko podcastak plataforma honetan daude– eta 2021ean bideoak. argia.eus –ARGIAko bideoak ez daude Youtuben, kanal honetan baizik–. Denak teknologia burujabetzarako bidean.

Mundu nahiko berria da sarearena, baina abiada bizian doa garatzen eta denon eskura dagoela, irekia dela eta askea dela dirudien horren atzean dauden kateak antzematen aspaldi hasi ziren batzuk. Mugitzen ez denaren kateena badakigu aski ongi zer den. ARGIAk fedibertsoan topatu du bere balioekin bat egiten duen komunitatea eta teknologiaren burujabetza helburu, badoa bere pausoak emanez, informazioa ahalik eta jende gehienarengana iritsarazteko asmoarekin, komunikaziorako bide berriak aurkitu eta probatzeko interesarekin, baina ahal dela edukien gaineko kontrola besteen esku utzi gabe. ●

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.
Ongi etorri denei komunitatera!

"Hilabete batzuk daramatzat Telegramen buletinak jasotzen eta udal liburutegian *Larrun* hilabetekaria irakurtzen. Ezinbestekoa dela deritzot, ahal den moduan behintzat, aportazio txiki batekin laguntzea".
Irundik Mikelek

"Kazetaritza oso ona egiten duzuelako, baita euskararen erabilera bikaina ere".
Antsoaindik Ibaik

"Kazetaritza independientea eta euskarazkoa delako. Eta umetatik ezagutzen dudalako".
Bilbotik Yurgik

Superheroiak ez ziren Kryptonen jaio

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

AEB, 1933. Franklin D. Roosevelt presidente hautatu berriak *New Deal* (itun berria edo banaketa berria) izeneko programa ekonomiko multzoa jarri zuen abian, 1929ko krakaren ondorioei konponbidea eman nahian. Baina ekonomia altxatzeaz gain, herritarren aldartea ere jaso beharra zegoen, eta eguneroko arazoak ahaztu araziko zizkieten entretenimendu modu merkeak hedatu ziren: zinema, irratia eta komikia.

Komiki tirak solte argitaratu ohi ziren ordura arte egunkari eta aldizkarietan, baina produktuaren arrakastaz baliatuta, komikiak albumetan biltzen hasi ziren. 1933an, *New Deal* abiarazi zuten urte berean, Harry Wildenberg eta Max Gaines, Connecticuteko Eastern Color Printing inprimategiko bi langileri komikien egile eskubideak eskuratu, erraz inprimatu eta kioskoetan merke saltzeko formula bururatu zitzaien, eta *comic-book*-a sortu zuten, 17x26 zentimetroko liburuxka, 24 eta 32 orrialde bitartekoa, gaur egun oraindik erabiltzen den formatua. 1934an argitaratu zen lehena, *Famous Funnies* izenburukoa.

Euskarria erabakita, eduki berriez hornitzeko garaia heldu zitzaien komikiei. 1936an Lee Falkek *The Phantom* sortu zuen, superheroien aitzindaria. Gainerako gizakiak baino askoz indartsuago izanik ere, heroi horrek oraindik ez zeukan superbotererik. Handik bi urtera, 1938ko ekainean Joe Shuster eta Jerome Siegelek argitara eman zuten "altzairuzko gizonak", aldiz, bai. Supermanen lehen komiki hartan horrela aurkezten zuten superheroia: "Zapalduen txapelduna. Bere existentzia osoa beharra dutenei ematea zin egin duen miraria".

Duela 90 urte, Roosevelten *New deal*-rekin batera, lehen *Comic-book*-ak sortu ziren, eta, berehala, komiki-liburu horiek beteko zituzten superheroiak ere iritsi ziren, depresio handiari aurre egiteko.

IZERDI TAILERRAK

Hasierako superheroi haiek kontzientzia soziala zuten: emakumeei tratu txarrak ematen zizkietenen aurka egiten zuten, poliziaren gehiegikerien aurka, langileak zapaltzen zituztenen aurka... Baina gidoilariek eta marrazkilariek ez zeukaten beren lan eskubideak defendatuko zituen superheroirik. Depresio Handian komikilariek langilez lepo zeuden aireztapenik gabeko bulegoetan jarduten zuten ordu luzez; *sweatshops* edo izerdi tailerrak esaten zieten zulo haiei. Lluc Casals historialari kataluniarrak *Sapiens* aldizkarian azaldu bezala, fordismoa komikiaren mundura ere iritsi zen. Baldintza kaxkar haietan aritu ziren, bestek beste, Batmanen sortzaile Bob Kane eta Jack Kirb, Spidermanen ilustratzailea, superheroien komikien urrezko aroko egile nagusietakoak.

Aro horren distira Gerra Hotzak itzali zuen. Fordismoa lehenago bezala, McCarthysmoa iritsi zen komikietara 1950eko hamarkadan. Fredic Wertham psikiatrak, *Seduction of the Innocent* (1954) lanean esan zuen komikiek gazteen delinkuentzia eta desbideratze sexuala bultzatzen zutela –Batman eta Robin homosexualak ziren eta Wonder Woman, lesbiana–. Comic Code Authority delakoa sortu zuten, edukiei buruzko arau zorrotzak ezarri eta betearaziko zituena. Zenbaitetan komikien erretze publikoak ere egin zituzten.

Superheroiak bizirik atera ziren kinka larri hartatik ere. Gaur egun osasuntsu daude eta borrokan jarraitzen dute... elkarren aurka. Marvel eta DC komiki industriako erraldoiek hamarkada asko daramatzate lehian, negozioaren banaketa ongiaren eta gaizkiaren gainetik baitago. ●

*Ñ*o! komikia

“Irabazi dugu aukera espazio batzuetan gure umorea egiteko”

Emakume bertsolarien esperientziak erdigunean jarrita, bertso saio baten bueltan gerta daitezkeen hamar eszena jaso dituzte *Ñ*o! komikian (ARGIA, 2023) Maitane Gartziandia ilustratzaileak eta testuen egile Miren Artetxek eta Eli Pagolak. Mamuak, trabak, heldulekuak eta aurrera egiteko tresnak islatuko dituzten hamar istant labur, konplizitate-keinu eta gozamenari gorazarre eginda.

JON TORNER ZABALA DANI BLANCO

Auto bidaiak saioetara bidean, manifestazio feminista, sariketa batean botatako izerdiak, gaijartzailearen barne-guda, publiko aliatua eta publiko estralurtarra... Hamar eszena biltzen dituen komikia ondu duzue, ez da istorio jarraia hasi eta buka.

Eli Pagola: Ez baita bertsolari bati buruzko komikia, zerbait orokorragoa baizik. Arreta pertsonaia batean zentratzea baino, eszenak deskribatu nahi genituen.

Miren Artetxe: Pasarte batzuk dira guk bizitakoak, besteak guk bizi genitzakeenak, edo kontatu dizkigutenak, edo imajinatu ditugunak... Kontua da emakume gorputz oso diferenteak daudela bertsolaritzan, eta guztiek ez dituztela egoera berdinak bizitzen. Komikiak aukera eman digu eszenaz eszena gauza diferenteak erakusteko. Denok ez gabiltza txapelketetan, ez dugu bertso-afarietan kantatzen, edo sariketetan...

Hain justu, Maitane, elkarrizketa hasi baino lehen komikian gorputzak hartzen duen presentzia nabarmendu didazu.

Maitane Gartziandia: Ez da kasualitatea lehenbiziko eszena [emakumea dutxan, saiorantz abiatu baino lehen] eta azkena [emakume biren arteko harreman afektiboa] direnak izatea, une kotidiano eta intimoagoak, emakumeak biluzik ageri dira... Komiki osoan pertsonek dute garrantzia, aurpegiek, eta ez hainbeste inguruak. Iruditzen zaigu bertsolaritza dela buru barnetik ateratzen den zerbait, baina gorputzak ere garrantzia du, eta marrazkietan horrek dauka pisua.

Miren Artetxe, Eli Pagola eta Maitane Gartziandia, Joxepa Antoni Aranberri 'Xenpelar' begira dutela.

Zergatik komikia?
E. Pagola: Bertsolaritza eta generoa lotzen dituzten lan teoriko piloa egin izan da eta gehiago egingo dira. Ikusten genuen komiki formatuko lan batek ere tartea izan zezakeela. Lizentzia ematen digu gaiaz txisteak egiteko ere.
M. Artetxe: Gure kideei eta gure bertso munduko feministei irribarrea sortzeko komikia da, zeinak indarra emango dien aurrera jarraitzeko. Egia da gauza asko ez direla esplikatzen, eta litekeena da bertso mundua ezagutzen ez duen irakurleari hainbat erreferentziak ihes egitea, baina tira, oro har genero gaiak ezagunak zaizkionak ziur identifikatuko dituela egoera batzuk, nahiz eta ez izan bertso munduko kide, baizik eta musikaren ingurukoa, edo literaturakoa, edo...

Lan teorikoak aipatu dituzue. Komikiak gutxi du teoriatik, hitz potolorik apenas dagoen. Beste bide batetik jo duzue.
M. Artetxe: Bertso munduko publikoarentzat gure diskurtsoa super garatuta dago jada, genero-sistemek nola zeharkatzen duten bertsolaritza bezalako praktika sozial eta kultural bat... Erabat xehatuta dugu denon artean; nahi duenak hor badu materiala. Gure asmoa gehiago zen hori nola materializatzen den erakustea, eta horretarako irudiak adibidez oso baliabide egokiak iruditu zaizkigu, eszenak kontatzen direlako.

Bertsorik ez da ageri komikian, amaieran jaso duzuen Joxepa Antoni Aranberri 'Xenpelar'-en sorta salbu.
M. Artetxe: Alperkeriagatik izan da [barreak]. Ez, iruditzen zitzaigun inoiz kantatuak izan diren bertso konkretuak jarriz gero izango liratekeela "halakorenak" edo "bestekorenak", eta guk nahi genuen izatea zerbait korala. Eszena batzuetan agian ongi geratuko lirateke, baina iruditzen zitzaigun testuak garrantzia handiegia hartuko zuela.
E. Pagola: Hori da. Bertsolaritzari buruzko lan batean bertsoak sartzeak presentzia handia hartuko luke, eta guk ez genuen interes berezia horretan.
M. Gartziandia: Eszena bakoitza argazki bat da. Segundo gutxi irauten duten istanteen argazki edo fotogramak dira, oso deskriptiboak, non ekintzak ez duen hainbesteko garrantzirik, baizik eta sentsazio bat deskribatzeak, giro bat.
M. Artetxe: Guretzat, kantatzera joaten garenean leku batera, bertsotan ari garen momentua gutxienekoa da, denbora gehiago pasatzen dugu aurretik eta ondoren, bidean-eta. Bertsotan ari garen unea da agian erosoen sentitzen garena, hori badakigulako egiten; beste momentu batzuk deskribatzea zen guretzat inportantea.

Agian gehitxo esatea da, baina komikia irakurrita suma daiteke geroz eta plaza gehiagotan sentitzen zaretela "eroso".
E. Pagola: Eremuak aldatzen doaz, badago lanketa bat bertsolari zein publikoaren aldetik, feminismoak aurrerapausoak eman ditu, eta garatu dira estrategia batzuk leku geroz eta gehiagotan erosoago sentitzea ahalbidetzen dutenak. Estrategia horiek ez dira norberarenak bakarrik, edo soilik bertsolarienak kasu honetan, baizik eta beste konplizitate batzuk sortzen direla, gai jartzaileekin edo publikoarekin esaterako. Hori dela-eta ari da pixka bat plaza aldatzen.

Publikoak dezenteko garrantzia du komikian.
M. Artetxe: Azken finean, bertsolarion tokitik publikoa ikusten dugu, eta aurrean ikustea jende bat uste duzuna zu entzun nahi zaituela, ala, aitzitik, ez daukala zu entzuteko batere interesik, zure jarrera aldatu egingo da, eta errimak errazago edo zailago etorriko zaizkizu. Inportantea zen hori jasotzea. Maila diskurtsibo edo teorikoan beti esaten da publikoak parte hartze aktiboa duela bertsoaren eraikuntzan, eta erakutsi nahi genuen praktikan ere eragiten duela.

Hori guztia, umore ukituarekin.
E. Pagola: Bai. Mami asko dago atzean, ordea. Ematen du komiki batek izan behar dituela irudi politak eta dena dela iji eta aja, baina erreferentzia bibliografiko askorekin egindako zerbait da, nahiz eta gero ez den idatzita ageri. Mirenek esan ohi duen moduan, kexa baino gehiago, protesta egiten dugu guk. Umorea dago, ez dugulako gure burua biktimizatu nahi. Badakigu zer dagoen, eta hor eragiten saiatzeko erabaki aktibo bat da.
M. Artetxe: Guretzako biziraupen estrategia ere bada umorea. Aipatzen ditugunean gure arteko aliantzak, konplizitatea, ahizpatasuna... ez gara esaten ari elkarri masajeak ematen ari garela etengabe, baizik eta barre egiten dugula egoeraz, gure buruaz eta besteez, baliatuta ironia fina eta batzuetan baldarra ere bai. Da estrategia bat bertsotan irauteko behar beharrezkoa, eta horren isla ere izan daiteke. Kotxeko eszenan, adibidez, elkarri kontatutakoak jaso ditugu, eta horien inguruan ez dugu negarrez hitz egiten.

Umoreak, besteak beste, botere-harremanak erreproduzitzen ditu. Hainbatetan irakurri dut bertsolaritzan badagoela umore hegemoniko bat. Hori aldatzen ari al da?

E. Pagola: Ez.

M. Artetxe: Eta puntu. Beste galderarik? [barreak]. Uste dut umoreak ia beti islatzen duela botere harreman bat. Gertatzen dena da irabazi dugula aukera espazio batzuetan gure umorea egiteko, saio feministetan besteak beste, publikoarekin partekatzen dugulako erreferentzialtasun bat eta badakigulako, esaterako, astakeria batzuk esan ditzakegula beste leku batzuetan esango ez genituzkeenak, gizonezko baten edota emakume matxistaren paperean kantatzean adibidez. Umorea egiteko molde berriak ari dira sortzen gune batzuetan. Espazio hegemonikoetan, gu ez gaudenean lehengoan segitzen dute, baina gu gaudenean galderak planteatzen dituzte: "Hau esan al daiteke? Eta beste hori?".

Umoreak inor mintzearen inguruko eztabaida antzua da maiz, baina... uste duzue komikikoek inor mindu dezaketela?

E. Pagola: Baliteke, zerbait umorez egiterakoan oso zaila da inor minduta ez sentitzea. Baina desberdina da minduta nor sentitzen den; kasu honetan, bertsolaritzaz ari garela, subjektu zabaldu eta boteretsuena sentituko baldin bada minduta, ba tira...

M. Artetxe: Uste dut arreta berezia izan dugula marrazkietan inor ez irudikatzeko irakurleek identifikatzeko moduan, ez da azaldu izenik kritikatua dena, ez dago erreferentziarik egiatan plaza konkretu batean gertatu den zerbaiti...

M. Gartziandia: Benetako argazkietatik abiatu naiz ni, gorputz-espresioak ahalik eta ongien harrapatzeko, baina kontu berezia izan dut inor ez pertsonalizatzeko, erraz asko jartzen ditugulako aurpegiak. Garrantzitsuena ez zen orriotan nor agertuko zen, baizik eta gertatzen ari dena.

Eta, Maitane, nola izan da gidoilari parearekin lan egitea?

M. Gartziandia: Gidoia elkarrekin pentsatu genuen 2021ean Iruñean egindako Biko-Teka tailerrean [Galtzagorri elkarteak antolatua hiriko Udalarekin batera]. Eli eta Miren joaten ziren eszenak kokatzen eta neuk unean bertan bozetoak egiten nituen. Uste dut ez dela ohikoena, normalean marrazkilaria lanean hasten delako behin testuak jasotzen dituenean. Nik marrazkiak egiten nituen, eta ostean sartzen zituzten elkarrizketa eta testuak. Bateratsu aritu gara.

Hori bai, beti gertatzen den moduan, marrazten dudana nire filtrotik pasatzen da, edo nik egin ahal dudan horretatik, eta zaila gerta ahal zait beraienagoa den mundu bateko zerbait irudikatzea. Niretik ateratakoa marrazten dut, eta ez idazlearen lekutik ikusitakoa. Azken asteetan aldaketatxoak egiten aritu naiz. Beti behar da negoziatu.

Kolorea baliatu duzu, eta ez zuri-beltza.

M. Gartziandia: Normalean gehiago egin dut lan zuri-beltzean, arkatzarekin. Baina kasu honetan, tonoaz-eta hizketan hasi ginenean, segituan irudikatu nuen komiki bat oso koloretsua. Umore ukituak kolorea eskatzen zidan, nahiz eta niretzat erronka izango zen.

E. Pagola: Zortea izan genuen, Biko-Tekan hirukote moduan parte hartzen utzi zigutelako. Astebeteko lanaldi horretan hiruok ere nahiko erraz aurkitu genuen elkar, eta hezurdura garbi xamar genuela atera ginen. Maitanerekin lan egin ahala testuak orrazten joan gara, baina ez gara asko kateatu.

M. Artetxe: Elkarrizketak daude giro bat sortzera bideratuak, oso naturalak egin zitzaizkigun eta erraz atera genituen; Joxeparen hitzekin ez da hain samurra izan, kontrapuntua nondik eta nola egin ez baikenuen erabat argi.

M. Gartziandia: Polita izan da eszena bakoitzak izatea bere joko bisuala, ideia bakoitzarekin jolas moduko bat sortzen da, batean eta bestean baliabide diferenteak baliatu ditugu, Joxeparen kasuan zuri-beltzezko argazki muntaiak egin ditugu jauzi historikoa eta erregistro aldaketa irudikatzeko.

Hain justu, komikian tartekatu dituzue marraztutako istorioak eta Joxepa Antoni Aranberri Petriarena 'Xenpelar' (1865-1943) protagonista duten argazki muntaiak, eta amaieran bere bertso-sorta bat ere jaso duzue, Enrike Elizetxek idatzitako neskazaharren kontrako bertsoaldi bati erantzuna. Zergatik?

M. Artetxe: Joxeparena zen modu bat esateko gu ez garela aurrenekoak, ezta azkenekoak izango ere, ahalduntze estrategiak martxan jartzen. Ez da derrepente gu etorri eta esan dugula, "ei, ahalduntzera gatoz!", baizik eta mendeetan aritu direla emakumeak bertsotan, eta beraiek ere erabiliko zituztela euren estrategiak. Hori irudikatzeko baliatu dugu, baita gure buruez barre egiteko ere, ez baikenion utzi nahi gizon bati hori egiten.

E. Pagola: Ezagunak dira bere bertso horiek. Garbi utzi nahi genuen ez zela guk asmatutako pertsonaia. Komikian esaten dituenak guk asmatu ditugu, noski, baina

emakumea bazen erantzutekoa... Ez gara gu izan mobilizatzen lehenak, ezta estrategiak garatu behar izan dituztenak bertso munduan leku egiteko.

Mobilizatu zein zentzutan?
E. Pagola: Estrategiak garatzearekin du lotura. Adibidez, komikiko eszena baten kasuan, auto bidaian elkarrekin goazela sentiaraztea, saioaren ingurukoak elkarrekin komentatzea, saio propioak sortzea guk buruan ditugun beste bertsokera batzuk lantzeko eta espazio horiek gure egiteko... Ez gara mugatzen saio batetik noiz deituko zain egotera, saioko neska bakarra izateko.

Komikian ageri den eszenetako batean, bertsolariak saiora bidean kotxean doazenean, gizonezkoak hitza jaten dio emakumezkoari; beste batean, jada kantuan, emakumezkoa ia beharturik da gizonezkoaren tonoan aritzea...
M. Artetxe: Ahots batzuek eta besteek pisu desberdina dute. Badago ez kontuan hartze bat, adibidez neska gazte batek esan dezakeenarekiko kotxe bidaian; aldiz, gizon batek esan dezakeenak, are gehiago txoferra baldin bada, pisu handiagoa du. Esaten digute: "Ba esan, hitz egin, egin", baina ez da hain erraza esatea, hitz egitea edo egitea.

Askotan gertatzen al da gizonezkoaren tonoak gain hartzea?
E. Pagola: Gehiagotan gertatzen da, ez gertatzea baino.
M. Artetxe: Fijatu zaitez pugna nork irabazten duen. *Gallituak* politak izaten dira.

Neska gaztearena aipatu duzue. Komikiarekin berdin sentituko dira identifikatuak emakume gazte zein helduagoak, ezta? Baita gizonezkoak ere, eta ez soilik bertsolariak.
E. Pagola: Ahalik eta zabalen egiten saiatu gara, baina gu garenak gara, daukagun adina daukagu, dauzkagun bizipen eta lagunak... Guztiaren argazki bat egitea ez da erraza, seguruaski gugandik gertuago daudenek errazago identifikatuko dituzte zenbait gauza, baina uste dut osagai gehientsuenak unibertsalak direla, ez agian zehazki komikian jasoak diren bezala, baina jende askok biziko zituen antzekoak.
M. Artetxe: Komikia gaur egunean dago kokatuta, egin bagenu 1970-80-90 hamarkadetan emakumeek zeuzkaten problematikei buruzko lan bat, diferentea izango litzateke, ziurrenik astakeria handiagoak idatzi ahal izango genituen, baina uste dut irakurle askori ez zaiola arrotza egingo hor jasoa dagoena.

> "Segundo gutxi irauten duten istanteak dira, oso deskriptiboak, non ekintzak ez duen hainbesteko garrantzirik, baizik eta sentsazio bat deskribatzeak, giro bat"
>
> **Maitane Gartziandia**

Ahizpatasun edo konplizitate keinu ugari dago komikian: esandakoak, begiradak, besarkadak...
M. Artetxe: Emakume askok partekatu ditugu espazioak bai mundu feministan bai bertsoari lotutakoetan, eta horrek ezinbestean ekarri du gutako batzuen arteko laguntasun, hurbiltasun eta afektua. Hori nabaritu egiten da. Beste neska batzuk ez ditugu pertsonalki ezagutzen, baina badakigu gure problematika berberak bizi dituztela, baita kontzienteki bizi ere. Hori horrela, auto bidaietan adibidez gertatzen denean antzerakorik, badakit alboan dudan pertsonak ere ulertu duela. Horrek ezinbestean sortzen ditu aliantzak, nahiz eta ez izan afektutik edo laguntasunetik, baizik eta badirela bestelako aliantza batzuk lehenago ezinezkoak zirenak sortzea. Baldin badakit neska gazte bat bere eskualdeko mugimendu feministan dabilela, eta kotxean bioi ari bazaizkigu *mansplaining* ikaragarria egiten, gero komunera bidean ez dut zalantzarik izango berarekin gaiaz hitz egin ala ez, badakit bera ere kontziente dela.

Eszena gehiagori buruz galdetuko nizueke, baina ez dut nahi espoilerra egin eta misterioa azaleratzerik.
M. Artetxe: Lasai, misteriorik gabeko komikia da [barreak]. ●

BABESLEA:

✓ 305.000 biztanleko lurgune euskalduna
✓ 101 udal
arnasa gara
euskaraz gara

"Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berriekin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira".
Jon Maia Soria

UEMA
100+
euskaraz gara

LIBURUA

Ulertezintasunaren onarpena



ETXEBERRIAK.COM

KANGAROO
MARTIN ETXEBERRIA
ELKAR, 2023

MADDI GALDOS ARETA

Ulertezin zaigunari hitzak jarri zaleak gara, ulergaitza ulergarri bihurtzeko nolabaiteko teman. Atzeman ezin dugun horri begiratzeko beste talaia batzuk badira, ordea. Tartean koka genezake poesia: konprenitu ezin dugun horri begira gera gatzaizkion gonbita izan daitekeena. Ulertezintasunaren onarpena izan ei du abiapuntu Martin Etxeberriak (Zarautz, 1974) argitaratu berri duen *Kangaroo* poema bilduman. Beste genero batzuetan ere aritua dugu zarauztarra, eta hauxe da bere bosgarren poesia liburua.

Aipatutakoa iradoki xede du 42 olerkien aurretik den kontakizunak. Dioenaren arabera, Britainiar Inperioa lehenbizikoz Australian lehorreratu zenean, konkistatzaileek ezezagun zituzten basapiztiak harriduraz begiratu eta haien izena galdetu zieten aborigenei. "Kan ghu ru" izan omen zen erantzuna, eta halaxe izendatu zuten animalia, haien hizkuntzan esaldi horrek "ez dizut ulertzen" esan nahi zuela jakin barik.

Zuzentzat jo ohi denaren ertzetara hurreratzen den lohitasuna eta iluntasuna dira gailen orriotan: giro kaletar hordigarriek, hautsontzi bakartiek, kristal hautsiek, karminaren eta odolaren gorriek eta bestetzuek ontzen dituzte poemotako irudiak. Tartean, azpimarragarri dira gorputzari edo, hobeki esatearren, haragiari loturikoak: giro horretan agertzen zaizkigu maitasunik gabeko amodio-egiteak eta elkar mintzen duten ohaideak, baita tristurari zein norberaren islari idatzitakoak ere. Halaber, ugari eta deigarri dira erlijio kutsudun poemak, eta, tartean, badira idazketa bera gaitzat dutenak ere: "Hitzen itzaletan / iltzatu hintzen / Jesukristo depilatu baten antzera (...) / Poesia delako / onartzen gaituen / infernu bakarra".

Aipatu oro, irakurleak hara eta hona jo dezan sustatzen duten erreferentzia doiez inguratuta dakarkigu bildumak, Etxeberriaren orain arteko gainontzekoek bezalaxe: Pizarniken lanturuak, Txaikovskiren ezpatak, irribarrerik gabeko Buster Keaton...

Baina irakurleari sosegua eskaintzen dioten argi printzak ere badira liburuan, besteak beste, *Egunsentia* edota *Terra incognita* poemetan. Izan ere, bizitza euripe estalgabe izan badakiguke ere, "Seguru gaude / lurrak topatuko gaituela, / jitoan behar adina mantenduz gero". Guztia ez da, beraz, desesperantza: arretaz begiratuta, onarpena bera erresistentziarako bide dela ere uler baikenezake orriotan. ●

MUSIKA

Ahots ederrak, zero eszenografia

E. MORENO ESQUIBEL / OLBE

EMANALDIA: OLBEk antolatutako Verdiren 'Il Trovatore' opera. Bilbao Orkestra Sinfonikoa.
ZUZENDARIAK: Francesco Ivan Ciampa (Bilboko Operaren Abesbatza) eta Boris Dujin.
ESZENOGRAFIA: William Orlandi.
ARGIZTAPENA: Fabio Barrettin.
BAKARLARIAK: Anna Pirozzi (sopranoa), Ekaterina Semenchuk (mezzoa), Celso Albelo (tenorea), Juan Jesús Rodríguez (baritonoa), Riccardo Fassi (baxua) eta Belén Elvira (mezzoa).
NON-NOIZ: Euskalduna Jauregian, maiatzaren 20an.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBEren 71. denboraldia amaitu da, Verdiren operarik ederrenetako batekin. *Tutto Verdi* proiektuari merezitako amaiera emateko eta opera denboraldi on honen azken txanparako publikoarentzat hain maitatua den *Il Trovatore* titulua hautatzea oso egokia izan zen.

Edertasun melodiko handiko opera da, pasarte eta aria bikainak dituena, baina bakarlarientzat ere zailtasun handikoa. Halere, arlo honetan, egia esan, Euskaldunako agertokian izan genituen abeslariek euren onena eman zuten, eta ahots-kalitate ikaragarria eta interpretazio-maila handia eskaini zuten.

Lehenik eta behin, orkestra-lan fina nabarmendu nahi nuke. Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Francesco Ivan Ciamparen zuzendaritzapean, bikain aritu zen. Eta esparru horretan bikain egoteak esan nahi du ahots-lanak dotoreki laguntzea, batere estridentziarik gabe. Ciampa maisuaren zuzendaritza diskretua, soila eta orekatua izan zen une oro.

Bestalde, Bilboko Operaren Abesbatzak, emanaldi egoki eta zuzenak eskaintzera ohitua, *Il Trovatore*-n egindako lana bikaina izan zen. Ederki enpastatuta, oso tinbre-kolore politarekin, koruak protagonismoa izan zuen; antzezpenaren onena izan zen zalantzarik gabe.

Muntaia honen akats bakarra, eta pena ematen dit esateak, William Orlandiren eszenografia izan zen. Errespetu osoz, gauza bat da minimalismoa eta giro hotz edo misteriotsu bat islatzeko nahia, eta beste gauza bat da hiru mahai eta dozena bat banku oholtzara igo eta sarritan mugitzea espazioak sortu eta aldatzeko, besterik gabe. Ondo planteatutako argiztapenari eta ekintza hobeto edo okerrago irudikatzen zuten proiekzioei esker, eszenaratzea –nolanahi ere pobrea– salbatu ahal izan zen.

Lau bakarlari nagusiak bikain aritu ziren. Bereziki Ekaterina Semenchuk mezzo errusiarra, Azucena zoragarria egin zuena. Ahots-erregistro gama bikaina du. Oso grabe ederrak, sektore ertain orekatua eta agudo distiratsuak. Gainera, bai bere legatoa bai fraseaketa zoragarriak izan ziren. Celso Albelo tenoreak ere, Manricoren paperean, distira egin zuen bere ahotsaren kolore ederragatik.

Bestalde, Tutto Verdi International Awards sarietan gizonezko ahots onenaren saria eskuratu zuen Juan Jesús Rodríguez baritonoak, sari hori zergatik jaso zuen erakutsi zuen. Ahots garbia du, jario dotorekoa, eta primeran egokitzen da berdiar roletara. Anna Pirozzi sopranoak, Leonoraren paperean, ñabarduraz eta armonikoz beteriko ahotsa erakutsi zuen, baina aktuazio nahiko opakua izan zuen, eta agian ez zen taldekideen mailan egon, nahiz eta, nolanahi ere, bere interpretazioa zinez ona izan. ●

Esna-aldiaren mezu ezkutuak

PLATEA

TRIPAK KOLEKTIBOA

Kult Parnasoan (Gernika), maiatzaren 6an.

IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Jainkoa agertu da eszenatokian. Aurpegi luzea du eta ahots sakonarekin bota ditu hainbat ohartarazpen. Ez dirudi txantxetan dagoenik. Ohartarazpenak bai, baina ikusi behar dugunaren azalpen handirik ez, bukatzean galderak egingo dituenaren mehatxua bota duen arren. Baina azalpenak ez dira beharrezkoak izan, egia esan, Tripak konpainiaren *Platea* obraz gozatu ahal izateko. Esna-aldian zehar egotearen sentsazioa izango dugu obrak iraun bitartean. Batzuetan ametsetan, besteetan erne. Amets gaiztoentzako lekua ere izango da, noski. Tripak konpainia osatzen duten nesken eskutik subkontzientera bidaiatu eta, ametsen laguntzarekin, mezu ezkutuak deskodetzen saiatuko gara.

Jainkoaren baimenarekin batera irtengo dira eszenatokira gainerako antzezleak, amets honen protagonistak. Atrezzoa minimoa izango da. Hilobi itxura duen mahai bat, oihal bat eszenatokiaren atzekaldean eta adarrak zorutik nonahi. Hiru aktoreen, eta Jainkoaren, nondik norakoei laguntzeko bibolinjole bat egongo da eszenatokiaren albo batean. Disposizio honekin emango zaio hasiera oturuntzari, zeinetan aktoreen arteko botere harremanen lekuko izango garen, beti ere Jainkoaren non-nahiko begirada zelatari eta epailearen pean.

Esna-aldia bi munduren arteko trantsizioa da. Obra hau ere hori bera izango da, bizitzaren eta heriotzaren tarteko bidea. Linbo honetan gure pentsamendu ilunak, beldurrak, neurak eta obsesioak, gure bekatuak izango ditugu aurrez aurre. Gure desioak ere izango ditugu parean, isildutako amets eta anbizioek talka egingo dute gure adimena gobernatzen duen beldurrarekin, *energía boteretus ete* erreakzionari horrekin. Jainkoak kontzientziaren epaile papera beteko du, zeinaren aurka egingo duten aktoreek, bere boterea zalantzan jarriz, euren sinismenak zalantzan jarriko dituzten moduan. Barrenak hustuko dituzte hiru protagonistek. Gai hauek ez dira soilik ikuspuntu dramatiko batetik landuko, umoreari eta absurdoari ere lekua egingo baitzaio.

Sentsazio onirikoa areagotzeko euri jasa ederra jausi da kalean eta ur tanta lodiek gogor jo dute Kult Parnaso kokatuta dagoen lokalaren kontra. Euriaren hotsak eta antzeztokian gertatzen ari zenak nahasketa ederra egin dute, kanpokoa barrukoaren soinu banda hautatua izango balitz bezala. Horrekin esnatu gara, eta horrekin eman zaio bukaera antzezlanari, ametsaldiari. Ondo edo "ez hain ondo" lo egin izanaren sentsazioarekin aterako gara kalera eta, edozein esna-aldirekin bezala, kostako zaigu ametsa eta errealitatea bereiztea, behintzat guztiz esnatu arte. ●

Gurutzegrama

EZKER-ESKUIN:

1. Sasitza. / Sargoria. **2.** Pozoi. / Pluralean, atearen erroak. **3.** Alegiazkoa. **4.** **Nafarroako mendia (argazkian)**. **5.** Su-arma batek jaurtigaia aurtikitzea. / Pertsona baten ideia multzoa. **6.** Izenburu. / Tristura sorrarazi. **7.** Antzeko, berdintsu. / Zerraldo, hilkutxa. **8.** Landare mota, garo. / Janzteko era.

GOITIK BEHERA:

1. Bilgor. / ...-apa, hitzez hitz. **2.** Erne. / Gaizto, oker. **3.** Serbian hitz egiten den serbokroazieraren forma. **4.** Informatika-sare erraldoi. **5.** Desagertutako ugaztun. / Euskal fonema. **6.** Gauza, kapaz. / Errepikatuz, loguraren eulia. **7.** Zoru. **8.** Erlijioso ordena. **9.** Platinoaren ikurra. / Emakume gaztea. **10.** Barazki hostotsua. / Erakunde belikoa. **11.** Jasangaitz, gogor. **12.** Txakurrak. **13.** Ezer ez duena, behartsu. **14.** Zimur. **15.** Ar sortzailea.

Sudokua

ERRAZA

6	5				4		1	
			5		6			3
9	4	7	1	8			5	2
5	6	9	4	3	2			8
7	2				5			
4			9	1		5	2	6
	7		6	4			8	
3	8						6	1
1	9	6	3		8		4	

ZAILA

		6		2	8		1	
		8		5		6		7
						4		9
	7		4		6			
3						2	7	5
8				7			4	
4	2	5	7					8
	8	1					5	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Doan egiten dena	**DOAKO**
Sehaska	
Erabatekoak, petoak	
Hozkada, haginkada	
Azalekoa ez dena	
Segurki, noski	
Mingots, min	
Irakasle gizonezko	
Apala, xumea	
Moldakor	
Adiskide	
Biguna, eztia	
Nola	**ZELAN**

EBAZPENAK

ESKER-ESKUIN: 1. SASIA, SAPA, 2. EDEN, GONTZ, 3. BIRTUALA, 4. BERRIAIN, 5. TIRO, IDEOLOGIA, 6. IZEN, TRISTARAZI, 7. PARETSU, KATABUT, 8. IRATZE, JANZKERA.

GOITIK BEHERA: 1. SEBO, IPI, 2. ADI, TZAR, 3. SERBIERA, 4. INTERNET, 5. URO, TZ, 6. GAI, TSE, 7. SOLAIRU, 8. ANAIDI, 9. PT, NESKA, 10. AZA, OTAN, 11. LATZ, 12. ORAK, 13. GABE, 14. IZUR, 15. AITA.

ANAGRAMAK

DOAKO
OHAKO
OSOAK
KOSKA
SAKON
NASKI
SAMIN
MAISU
UMILA
MALGU
LAGUN
LEUNA
ZELAN

GAUR HITZA EMAN, BIHAR HAIZEAK ERAMAN.

ATSOTZITZA

ERRAZA

6	5	3	2	9	4	8	1	7
8	1	2	5	7	6	4	9	3
9	4	7	1	8	3	6	5	2
5	6	9	4	3	2	1	7	8
7	2	1	8	6	5	9	3	4
4	3	8	9	1	7	5	2	6
2	7	5	6	4	1	3	8	9
3	8	4	7	5	9	2	6	1
1	9	6	3	2	8	7	4	5

ZAILA

9	3	7	4	8	5	1	6	2
6	8	1	2	9	3	7	5	4
8	1	9	5	7	6	3	4	6
4	2	5	7	6	1	9	3	8
3	6	4	1	8	9	2	7	5
5	7	2	4	3	6	8	9	1
2	5	3	6	1	7	4	8	9
1	9	8	3	5	4	6	2	7
7	4	6	9	2	8	5	1	3

Eneko Axpe Iza

MARTERA BEGIRA

"2025ean espero da lehen emakumea eta zuria ez den lehen pertsona ilargira heltzea"

Eneko Axpe Iza (Barakaldo, 1986) fisikari eta ikerlaria da NASAn, AEBetan, San Frantziskon. Lehen euskaldun fisikaria da NASAn. Musikaria ere bada, hainbat taldetan ibilia. Buru belarri ari da orain lanean; proiektu interesgarria du esku artean: ikertzen ari da nola elikatu 2050eko hamarkadan Martera misioa egingo duten hiru pertsonak. Misioaren arriskuez eta arazoez mintzatu da, oinak lurrean, Euskal Herrian zituela.

IZAR MENDIGUREN COSGAYA

MUSIKAREN ESPAZIOAN

"Zientzian ona banaiz, sormenari esker da. Etxean mila binilotik gora ditut. Musika elektronikoarekin 12 urterekin hasi nintzen, mix-ak egiten, eta rap kantak gero. 19 urterekin 121 Krew taldea sortu eta 200 kontzertutik gora eman genituen. Gero, Patrol Destroyers elektronika taldea eratu genuen. Musika egunero entzun eta astero egiten dut. 2019an nire lehen diskoa atera nuen bakarka: *Ume zahar*. Lan horretan instrumentu tradizionalak (alboka, txalaparta, trikitia…) *beat* bihurtu nituen, Euskal Herria eta Kalifornia nahastuta. Aurten, Kaliforniako ekoiztetxe batekin kaleratuko dut jazz hip-hop instrumental lana. Euskaraz ez den lehen abestia 35 urterekin egin dut, ingelesez: *You are my favorite problem* ("Zu zara nire arazorik gustukoena)".

Nola iritsi zara suziriak botatzetik espaziora koheteak bidaltzera?
Fisika ikasi nuen Leioan, bi master egin nituen gero, eta nazioartean egin nuen doktoretza azkenik. Euskal Herritik kanpo asko ibili naiz: Espainian, Ingalaterran (Oxford eta Cambridge unibertsitateetan), eta 2017 amaieran, AEBetara joan nintzen, Bostonera, eta geroxeago Kaliforniara. Han bizi naiz eta NASAn topatu dut gustuko lanpostua.

Lehen euskalduna zara NASAn?
Hobe esanda, lehen euskaldun fisikaria naiz, aurrez ingeniari batzuk egon dira-eta. Esaterako, Leo Ehyhart Miarritzeko astronautak zabaldu zuen Columbus laborategia nazioarteko espazio estazioan. Pilotua izan zen lehenbizi, eta bi aldiz egon da espazioan.

Nire kasuan, printzipioz 2025era arte NASAn jarraituko dut kolaboratzaile zientifiko gisa lanean, proiektu luze batean murgilduta. Orain aztertzen eta proiektatzen ari gara nola elikatuko diren 2050 inguruan Martera joango diren hiru misiolariak. Ideia da misioan bertan elikagaiak haztea, baina frogatu genuen, eta 2018an saritu gintuzten horrengatik, Marteko misioan astronautek hezur mineral dentsitate mordoa galduko luketela. Horri aurre egin beharko zaio, eta gure proposamena, 2050ean edo inguru horretan izango den misio handirako, miselioa garatzea izango da. Onddoen sustrai bat da miselioa, proteina asko dituena, azkar hazten da eta ur gutxi behar du.

Marteko espedizio batean, hiru urtez hiru pertsonak nola biziraun aztertzen ari zara?
2050eko hamarkadan bidaliko da lehenbizikoz gizakia Martera. Printzipioz ez dugu Marte zapalduko, buelta emango zaio. Baina joan-etorria hiru urte dira, eta asko sufritzen du gorputzak. Espazio ontzia txikia

"Aurten 30 hegazkin hartu ditut jada. Orain ondo datorkit, baina etorkizunean ezingo dut horrenbeste bidaiatu, beste ardura batzuk hartzeko".

denez, lehen arazoa, psikologikoa izango da, eta ikerlari asko dabiltza horrekin lanean. Hiru urtez, hiru pertsona hain leku txiki eta itxi batean bizitzea oso gogorra da. Horrez gain, atmosferatik kanpo, aukera asko dituzte espazio erradiazioagatik minbizia garatzeko. Eta beste arazoa, elikadura da: proteinarik gabe hilko ginateke, eta masa-bolumen aldetik zaila da proteina nahikoa eramatea espazio ontzian, ez da erreala. Horregatik, miselioa, elikagai gisa ez ezik, habitatak egiteko erabiliko dugu: adreiluak egiteko baliagarriak direla frogatu dugu jada lurrean, eta aulkiak, mahaiak eta abarrak sortuko ditugu horrela.

Lehenago, ordea, izango dira berrikuntzak: 2025erako dago programatua lehen emakumea ilargira heltzea, eta zuria ez den lehen pertsona ere bai. Ez daukat informazio askorik ordea; Marteko espedizioan ari naiz lanean ni.

Zenbat urteko lana da halako misio bat makinatzea?

Urte asko (barre egiten du). Marteri buruzko ikerlanak duela mendeak hasi ziren. Milaka lagun gabiltza lanean, jende eta diru asko behar da. Ilargira joateko, esateko, 140.000 pertsona baino gehiago aritu ziren lanean Apolo programan, 1969an. Orain gauza bera egin nahi dugu Marten. Espazio ontzia, traje espazialak, zer jan, zenbat kirol egin, psikologia, argia… Milaka arazo eta konplikazio aurreikusi eta landu behar dira.

Nolakoa izan behar du Martera edo ilargira joateko astronautak?

Fisikoki zein psikologikoki, oso prestatuak, garatuak eta indartsuak izan behar dira. Azkarrak ere bai. Astronauta asko ingeniariak, medikuak, biologo edo fisikariak izaten dira, edozein arazori aurre egiteko prest egon behar baitira. Lurrean lantaldea dute, baina beraiek, han egonda, zenbat eta gehiago jakin, hobe da. Hiru urte asko dira, eta osasun arazorik badago, tartean mediku bat egotea ondo legoke. Urteetako entrenamenduak egiten dituzte.

Eta espazio ontziak?

Gero eta zehatzagoak dira, oso potenteak jada, oso ondo prestatuak. Ilargira bidalitako azkenak 100 metro inguru zituen; San Mameseko zelaia bezain luzea zen, hortaz.

Bizimodu eta lanbide nomada da zurea. Zelan daramazu?

Aurten 30 hegazkin hartu ditut jada. Apirilean hiru kontinenteetan ibili nintzen, esaterako. Orain ondo datorkit, baina badakit etorkizunean ezingo dudala horrenbeste bidaiatu, beste ardura batzuk hartzeko.

Orain, batzuetan ez dakit AEBetan edo Euskal Herrian nagoen esnatzen naizenean. 22 urterekin ez nuen imajinatuko horrelako bizimodua izango nuenik, ezta txikitan ere. Nire ametsik basatienean ez nuen imajinatuko nire errealitatea hau izango zenik. Ordura arte, nire errealitatea Barakaldo zen, nire auzoa: musika elektronikoa, heroinaren bukaera... 14 urterekin ez nuen Algorta ere ezagutzen. Hala ere, oso harro nago nire herriaz: nik Barakaldo utzi nuen baina Barakaldok ni ez nau inoiz utziko. Zoriontsu izaten jarraitu nahi dut, eta jendarteari eta humanitateari zerbait handia uztea. Bizitza ez dut sofan etzanda Netflix edo telebista ikusten pasako. ●

Eta hurrengo alkatea zozketaz aukeratuko bagenu?

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Unibertsalki onartutako hizkeraren arabera "gogoeta egunа" hauteskunde bezperakoa izan ohi da, baina beste kontu askotan bezala, elektomaniakoen artean ere gauza bat da teoria eta bestea praxia. Eta gogoeta egin, hauteskundeen biharamunean egiten da. Batez ere galdu baduzu, baina ez bakarrik. Imajinatu tarte oso estua geratu dela aulki-joko instituzionalean eta paktumetroaren aginduz traturen bat itxi behar duzula kanpaina osoan hatza begian sartzen aritu zaizun beste alderdi horrekin: gogorik ez du ematen. Premia gogorra da ordea. Gogoeta egin behar. Eta bikarbonatoa hartu, hori ere bai.

Dena den, ni igo eta zu jaitsi guztien gainetik, bada urtez urte atentzioa deitzen didan datu bat: zenbat jendek parte hartzen duen hauteskundeetan. Hobe esanda: zenbatek ez duen parte hartzen. Izan ere, kanpainan egiten diren ahalegin pertsuasibo guztiak gorabehera, hamar lagunetik lau abstentzionistak badira, azkenaldiko demokraziaren festetan jartzen den musika modaz pasata ez ote dagoen galdetzen hasi beharko dugu noizbait.

Bai, ados, problema ez da berria, baina ez dirudi soluziorik aurkitu zaionik ere. Behintzat ni ez nau batere konbentzitzen maiz planteatzen zaion irtenbideak –"botorik ematen ez baduzu, izorra zaitez eta jan emaitzak patatekin"–, gailentasun moralaren urrin berezi hori edukitzeaz gain, pedagogikoki ere ez delako Makarenkoren eskolakoa preseski. Baina beste aldean, ez naute asko konbentzitzen abstentzionismo aktiboaren banderapean datu inportante bat gordean eraman ohi dutenek ere: abstentzionista gehienak ez direla militante nekaezinak eta igandeko asuntuaz paso egin ondoren ez direla joaten zerbaiten aldekontrako asanbladan

parte hartzera. Alderdiek boto bakoitza lortzeko izaten dituzten konplikazioen antzekoak dauzkatela, alegia, sistema horretatik kanpo antolatzen diren politikek ere.

Ordezkaritza instituzionala derrigorrezkoa balitz, gauzak bestelakoak izango lirateke nik uste. Hauteskundeak egin ordez, instituzioak osatuko dituzten pertsonak zozketa bidez aukeratuko bagenitu, adibidez. Eta tokatzen bazaizu, ba zu zinegotzi. Ei, ez begiratu horrela: ateraldi hau niri bakarrik bururatu izan balitzait onartuko nizuke mutur oker hori, baina kontuan izan gu biok baino askoz listoagoa zen norbait, Aristoteles, zozketa bidez hautatuko magistratuen alde zegoela, boto bidez hautatzea prozedura oligarkikoa iruditzen zitzaiolako.

Ideiak jarraitzaile ilustreak izan zituen, portzierto: "Zozketazko sufragioa demokraziari dagokio; hautabidezko sufragioa, berriz, aristokraziari" (Montesquieu, *Legeen espirituaz*); "Egiazko demokrazietan, magistratugoa ez da abantaila bat, baina karga pisu bat, justiziagatik partikular bati beste bati baino berezikiago bizkarrean eman behar ez zaiona. Legeak bakarrik eman diezaioke horrelako zama zorteak hautatuko duenari" (Rousseau, *Gizarte hitzarmena*).

Hori bai, XIX. mendetik aurrera loteria demokratikoaren hipotesia aparkatuta geratu zen, kasik atzo goizera arte. Azken hamarkadan berraktibatu da, nonahi sumatzen den neke demokratikoaren aurrean; eta zozketa bidez antolatutako diseinu-instituzionalen maketa sofistikatuak ere argitaratu dira gauza publikoaz fuerte pentsatzen duen jendearen aldizkarietan –Terrill G. Bouricius-en hau irakurtzetik nator: https://labur.eus/demozozketa–.

Ni, egia esan, nahiko sinesgogorra naiz mota horretako planteamenduekiko. Eta horrexegatik ikusi nahi nituzke martxan: fortunak agindutako politikak ezin du izan fortunak biltzeko agintzen diren politikek baino askoz okerragoa. ●

ZIBURUKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA
ZIBURUko 4. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA
EKAINAren 3an
PILOTA PLAZAN
ANTOLATZAILEAK
ARGIA
BALTSAN
ELKARTEA
PARTAIDEAK
IRRATIAK
ZIBURU CIBOURE

ARGIA BABESTEKO 11 ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdirena.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA PAPEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIAn jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA PANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugarirekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARPIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu,
inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiakoa